

Arratia

Arratia'rrak: Tinko. Gaurko ontan enatorkizue emengo ta ango barriak emotera. AGUR illero agertuko dan (ostoporik ez badau) aldizkari barri onegaz bat eginda Udabarri-zorionak emotera nator.

Bizkai'ko ta Bizkai'ko ez diran edo izango ez diran barriak izango doguz bizkaieraz idatzita. Begientzat lan erreza, buruarentzat ulerkorra eta biotzaren pozgarri izango yakuzan arlo samur-asegarriz beteta jagiko da illean bein.

Atxakizko izki (letra) uts eta uguzi edo ezan ezin dogunik ez dauala erabiliko esan dausku, eta itxaropen oso-osoa dot beteko dauala agindua. Eta olan izan ezkeru, nai ta nai ez izan, bearko dau gozoa, nekerik bakoa, argia ta samurra.

«Euskeraz irakurtzen, eneban ikasi: begiak ez dodaz ezita euskerara; gipuzkeraz gatxa dala» t.a., amaitu dira AGUR-egaz.

Asi zaitez ba, arratiar euskalduna, euskeraren ume barri au laxtandu ta maitatuten. Ezegizu egin atzerakadarik. Orraztu sakoneraño zure izkuntz bizkaitarra ta bizkaieraz idatzitako lanak. Aolku au, apaltasunez emoten dautzudan agindu au gogo onez beteko bazendu, etxeko ta ezagun izango litzakizuz, bai-ta errez, Gipuzkoa, Nafarroa naiz Lapurdi. Au egingo dogunean, lortua izango dogu euskera bateratua; gogorrean, indarrean ta andikerietan burua erakutsi barik egindakoa. Ikasi daigun ba, geurea maitatuz, auzoentzako begirapena izaten.

Basa-piztien gogo-biotzak, gogorkeriz ez dira irabazten; askozaz gitxiago zentzundun aberearenak.

Eta amaituteko. Gogoan izan irakurle, illero agurtuko gaituzan AGUR-en jokabidea au dala: ezjakinentzat, erreztasuna; alperrentzat, gozotasuna; eta bake zaleentzat aspikeririk gabeko bakea.

Udabarri zoriontsua Arratia'ri, Bizkaia ta Euskalerra osoari.

A. LANDAJUELA

Arratia

Galeperra - pospoliña

Idazpuru au irakurriko dauan eizariak begiak zabal-zabal eginik, baliteke galeper-lorratzari jarraitzea abihada txoria aurkituko daualakoan, olako ametsik ez egin baiña, eizari irakurle.

Idazpuruaren zerak eta aldizkari onak badabe alkarren antz eta irudi; ta ona emen zelan eta zergaitia:

Orrillaren 29 grn. goizeko zortziratari arrautzatxo bat besterik ezan, ezer giti. Amarrak aldeya «pospolin, pospolin» abestu eban euskaldunai deika jayo zala adieraziz. Arratsaldean arrautz-oskola ipurdian eta plageak suturik Arratia zearkatuz oiau Araba'rantz begiraturik, gorantz, txalo ta agur gozoak, legezo zan lez, entzuten ebazala. Arantzazu'n gaua emon gaztediagaz, eta igande goizean goiz Aratzan izan zan. Orain ezkerre barriz, bai Gipukoa'n eta alan Naparroa'n-Bizkaia'n zelan ezanik ez - euskaldun jatorren eskuetatik garia jaten ariko da.

Sasi-naski

Amaikaxo ikusi izan doguz gogaituta (aldi ontako gaxoak jota) belarriak makur, gogoa illundurik eta naskatuta sasi-naskikeri saskolak menperatuak.

Asko gara geure zoritxar gaitzorako irakurten ezer giti ta idazten teutik ikasi ezgendunok.

Erreztasuna nai izan dogu, onen billa jokatu dogu ta emen dogu, eta etxekoaren gozo ta zaletasunagaz jabetzen garenean, betos giputz anaten idazlanak, naparrenak, iparaldekoonak. Gottik beerako aginpide gogorraren etsai gara; beraz, itxi erriaren esku bastik gorako aukeratzea agiten, euskera bate-raturako bidea artzen.

Oarra

Zuri, eizari; bai-ta zuri, neskaiko natz mutiko; galeper zoli onen abestia entzungo dozunean, ez joan bera iltera, arrautzak ostutera ta abia apurizera. Emon egiozu garia loditu datten, izan esker onako geure-geurea da-ta, lagun bizi datten.

Irakurle ta arpidedun

Aldizkarionen lenen irakurleak Arratia'n, M.^o Tere Pujana (Dima'koa), M.^o Angeles Petralanda ta M.^o Bego Arandia (Igorre'koak) izan dira. Lenengo biak gogotsu irakurten eban artean Fasio soñuren alaba alper samar agertzen zan.

Arpidedunak Iruarizaga'tar M. ta Sopelana'tar M.

AGUR'en agurrak guxtioi.

Izpar zaar bat

Artsaga'ko gaztediak eratuta euskal-jai polita izan zan igarotako azken urtean (Artsaga'n).

Inguruko errietan iragarkaiak zabaldu ebezan, eta allzoko orman illumabarrean jarria izan zanak bizitzea laburra izan eban. Ete dakizue nork kendu eban? Nik, bai. Mokorralako erdi-atso bat zan. Euskerari amurrua dautso ta orderaz ikasi barik ilgo da. Au bai au azaburua!

A. LANDAJUELA

Yurre

Santalutzi

Goitar alderdi onen izena, aldien baten, Intsaur-bizkar izan ei zan; gaur egun bertan dogun bazeliza txukuna iragi edo jaso ebenean Santa Lucia izena artu eban (erri euskaldunarentzat Santalutzi), baiña, San Kristobal be tellatupe bersan dogularik, eta onen jaia ospetsuagoa izanik, antzunagoa ta zabalduagoa da berebil (automóvil) errotzalleen zaindariari dagokion izena, San Kristobal.

Garai ta Garamendiren ganetik, Aramatz'en barronetik, Loiate'tik Dima'rako bidepeko auzune on-tan zornontzarrak eta igorretarrak egin eben burru-kaldi basatia izen andikoa izan zan. Oillar garaille arraitarrak izanik, Zornotza'ra joan ziran Karmen-jaietan, ezeben izan berrura sartzerik, eta etxera bihurtu eiran belarriak apaldurik. Arago onen barri zeatzik gura dauanak, itaundu dagiola Josetxu Etxebarri'ri, urzaleri.

Lenago, orain baño txartoago, baiña azkeago bizi izan gifanetan (orain, lanaren morroi, guztio) ona jotez eben auzo-errietako amonatsokak eta ama gazte askok be, umetxua besoan batzuek, eskutik bestebatzuek, belarrietako min eta oñazetatik azke izateko.

Urtean beingo oitura zaar au makaldu egin da, jateguna indergatu, igande eguerdian baiña, Santalutzi'n izaten dan lako mezarik, non? Erroman bez. Gaur egunetako eleiz-giro otzak eraginda, bertakoak eziran askok jotez dabe Santalutzi'va; emen aurkitzen dabe asetasuna, eta ementxe, bai-ta, aste guzti-rako barren-bakea ta nasaitasuna.

Batzar-tokia

Berebillaren (automóvil) jabe zarien gizon eta emakume, egunero zortzi edo hamar ordu kate laburragaz lotuta emoten dozuezan langille-apalok, uri andietako kiratze ustelduari igesga ari zarien guraso umedunak, bai-ta, zu gallurrik-gallur aize garbieren bila zabiltezan mendizale kementsua; igandez naiz jaian baten Igorre'ra iritxi, elduko ba'zina, ta gaztedi alkartuak egin dauan lan polit-polita ikusi gura ba'dozu, etzaitz aizu Santalutzi'ko Santalutzi'gaz.

Bagillaren 27'gn, larunbatez, izan zan zabal-kundea ta batsoa, eta onako jaiari dagokion apart-xoa. Edaritzat bertan jayoten dan ur garbi lerdana. Maiak inguratzen, lan egin ebenak, adizkideak, abade ta deabru, kitarra ta txistu. Guztia izan zan anaikor eta dana poz-oxin. Aurrera, gazte!

Biaraxonean

Illak 29, oraindik jai-uaiña aizetan abillala, an gengozan noizean-beingo ikuxmirazaleak be. Gorospe'tar Ander izan gendun erakusle (AGUR-en arpideduna) ta gu, begiluze. Arroheririk gabeko lan politak, arte-beso-adarrak; aizkoraz landutako txur-rrut-maita; azeitze-lepoak; aitzeko txakurtoa, errortarri t. a. Emen izan zan, bai-ta, Mallubi'tarren baserrian suskera ikasten dihardun Ortiz-Otxoa'tar Josune, neskakil tiraña, bilbotarra, Ander'en kitarra jo ta abestuten ebala. Ementxe izan zan «AGUR» be, benetako suskera-maitaleak diranen adizkide agiaskoa. Arrera txeratsua izan eban, eta beraren orrialdeak ikusiz, moltsoka arpidetu ziran.

Jayotza

Begoña'k eta Santi'k, Bengoetxe'n bizi dan arratiar bikoteak, ezkontzako bigarren morroskoa izan dabe. Oraingo onak Justo Ibarra berbera (aitite) dirudi, ta, Justo'ren ezpanetan poz-andurra ugari.

Goreta'tar Mari Tere'k (arpidedun) eta Ibarra'tar Jabierto'k (itxasoan gudaritza geiten) al-karenganako maitasun sindoa indarbarrituteko era izan dabe. Bengoetxe'ko jayobarriaren aitabitxi izan yakuz, Umetxoaren izena; Unai.

Zorionik andienak guztioi. Zu, Jabi, itxas-urak etzaitzala otzitu; eta zura biotza M. Tere, ez daitela tximurtu itxaron luzearen nekapsan.

Aita eredugarria (ejemplar)

Boskotxe'ko Egileor, Lemoan bizi dana, dogu aita eredugarri au. Etxerako bidean doa gizona bizi ta semetxoakin. Semea aurretik doa arri koskorrai ostikoka ekiten, Alako baten semeak: «Aita: yo también quiero ir».

Semearen itzak eztabe izan soñu gozoriak aitaren belarrientzat, eta onek txikiari: Seme: arren, mezedez, ezegidazu egin itz erditxo bat bera be erderaz.

Erderari gorroto? Gorrotorik, ez; norbera lenengo, bai.

AGUR-en begira dagon Aizpuru'tar Leontzio errikideari, gorantzi gizen-gizenak aldizkari egazlari enen bidez.

A. LANDAJUELA

Arratia

Euskeraz ari izaten geranean Lamindao, ta erderaz diñardogunean Lamindano deitzen dautsagun auzune bizkarean izan barria naz.

Dimako Bentatzuri ta Areatza (Villaro) bitarteko konkorra da. Antxiñako aldietan sorgin-lamiñen toki entzutetsua, aspaldi ontan ostera, txapel-gorrien urteroko batzar-tokia.

Sorgin-lamiñek, alkarren lengusu, ondatu ziran; Anbotoko Mari Urrakaren barririk eztogu, ta bertan batzartuten diran txapel-gorriak urterik urtera urritu. Antxe dago baiña Madalena'ren baseliza ongi zaindua, garbi, txukun eta dotore; zerurantz jasorik gurutza, ta lu ezkil edo kanpai dindiliz dituala, eta ondotoxoan ormaz esitutako landa, saltasuna, gizon biziaren barruan errukil kutua egiten dauana, ixileko otoietan jartzen gaituna, geroko geroagaz arregatuten gaituna, auzotarren azken atse-dontokia.

Baketsu, bakar eta astitsu izan naz ta, Lamindaoko illerian, 26 gurutz dira alkarri besoak zabalik, eta zaarrena 1940 goa. Larrea-Egia anai-arreba umetuen oroimenez jarria. Illabeteren bitartean il ziranak doguz.

Oraintsuen eortzi edo illobiratua, Lapitza-Goikuria, 1969'gn; eta ildakoen artean gazteena Artabe-Iturbetar Jose Mari, ta illabetekoa.

Zergaitik ikusten doguz baiña, euskaltan utsak baiño besterik bizi izan eztan gaur aretan, ainalbeste ta orrenbeste aquí yace, aquí descansa, en recuerdo de una oración por... « a. ta. a.? Norena erria? Inorena bez. Geu bakarrik gara erria, geu etxekalte. Geu, besterik ez, euskal aortasunaren ondatzalle.

Gaixo bardin-bardiñak jota ikusten doguz, bai ta, ilten diranak eta lenen smartzeak gogoan izateko egiten dotan orritxoak. Noiz arte iraungo dau noiz tximel-igartuagaz bizi dan erriak?

Lamindao-mendia euskera-lur apatza konkorra izan daiten, bat bakarra bertzen yaku bizitzan izan zan baxen eskaldun, 89 urtedun zala il zan eta arterina'tar Blas izan zana berbera da,

LANDAJUETA'TAR A.

Arratia

Eguneroko izparringirik eztegun ezhero zar-
kiratik ikututako barriak be pozpozik irakurleak
doguz sartitan, behotzaren artia naitz adizkideen
baten izena ikusten doguzan batz bere, Nire artia
ontako barriak bere, gaur goizaldeko ordubatah bai-
no laningogokoak dira, baita, AGLR'en irakurle
dizan arratzen eskaria dan ezhero, amen naz ba
Arratiari buruz sar-ido-sar azaltzera storrita.

LEMOA

Lemoarrak botrako nagitu zivala uste gandu-
nak, agie eta benetan postu gihan gure utzagaz.
Oraingo antan bai astindu doguzcotez bitiderra ta
alperkaria. Odol barria, arnasa garbia ta osatun
bikaita emon daukuzue erakustera arriko jaitan.

Igurtzi begiak, ikusi, ta jerrat aurrera gustion
onerrako ta erriaren osasunerako.

Makallo-Pilpilleta

Batzuk sartaren bila art ziran artean baste
batzuk oxe ta izenaren gorakada lortu gura aban.
Eta onse, etxean astitsu ta bakatsu gertaturik euker
hagutako gogo-gogozagaz tripa bete emon eutsuen,
xel-misilikak ikarrikako bitboter izparremaila edo
periodista bateri. Sefataria zeanuritarva izan dan
arren, parka eshe makurteen naz izilikako gauzatxoak
argitaratu dedasalako.

YURRE

Oillo-arratzeak lako tsingor-arrak zati-txifitu
ebazan txeliturik gisanak barrituta ikusi genduzan,
baste ala-olako estalkiz obuan estalduak bere
sabsarraren lortzeta agertzen abala. Zeparrak
ikaragarrak ezban izan aldarangonako hupi-
errakirik, eta mallukata gogoraren bidez tallatua
zutatutik ona emon Igorreko eteiza diru-laguntza
gorriaren baurran.

Izango dira gogo onse eta ugari emongo dabanak,
baste asku-urriak eta askurik zabalduko estubanak
be. Alzankoen zio eta motzosa amen dogu. «Jauna-
van aurrean guztiak baidanak gavan ezkerp, zergatik
ez eskubide baidanak Beraren etxean bel Alan alde
basteok alai basteokak, danak izan ziran arriko
yrenek. Batzuen izenak eteiz-ateburustan idatzitak
ikusten doguz, basteentzat barrie etean izan tokirik».

Ozpina sarrago ta garratzago, galza beti gazi.
Beraz, nira uste apalez, iten diranai lurra, eta siki-
stian aintz eta bagrapenecho malla bardiña.

JAIK

Lanngo egunean zer ihuririk gisi ta bixitaxun
gitxiago; bigarrenen, begi-beldurriztat gozoktak.

Arvatsaldean arratier eta galdakaotar neskaitilen
arteko oxtiko-pelata. Arratierak, 2; galdakaotarrak
porrot. Otxonakentzat atsegiazko begitortia.

Ihunahayren hitarradun arratier abasariak.
Leren-caria Arvatsako Patzik jaso aban, Itxar-Lot
bikotarenizat izango kala uste bagenduan be. Aur-
kalarria Lemoan izan zan murrakoa berbera izan
zan amen bere jataren asteran eta amaieran basteoz
agurtu genduzana, gure Arder, Goroxps andia. Be-
netan sakona ta erotsua, adizkide, tre askenagur
mamitsua.

Ubetzaga'ko baitegia su ta gar ezarritutan zan
arteon, irukote txalogarria jarri yakun bagin
aurran, uste gabean. Toyone, nurraskitu eta pander-
retakin, unetxuena; Kepa Andoni, besartean eukan
hitarra baita andiagoa etxana ta Itxarone, anditena,
irurak unse-unsak, lemoarrak. Artu ta gorde agieus
adizkari onen ZORION zintxuena.

OTXANDIANO

Otxandian aurtan izan dan txapel-jatan txapeta
buruan jaitzen ezaze txapeljoko buruagaz zelan
jakatu bear dogun irakatsi ederrik izan gendun.

Orain iru urte lanngoaz ospatu zenezan, larriak
jata atzeratu gihan, mikrofono edo dalako arean
aurran izan zan gozteak eukereari egin autsasan
lotzaritko train eta zapuskatak antzun ondoren.
Otxandiano muga buruan zeta izan arrezhero tko
ezitirik, pipar gorrik ezitara mozusia baitatik.

Oraingo antan Axua'tar Rutz erriko seme
zintzoa izan gendun aginduek ematen eta jata
zuzentzen. Beraren eukhera goco, ta batz bere
ugaria art zanatik amaitu arte.

Ona emon Buhkanaren errikidak, buruargi
ikurien sartogidunak, tiro bakarragaz txori bi
eratik. Txapelaren bidez, «por educacion» atso-
tan lagarik, Aitor'en txuntzari tohia eskaini ta
oso-osorik emondakoa.

Agur Otxandio! Zuek ikusi ta azagutzeko
asmoz or izan zan AGLR onen zorion eta txaloak
jat-eratzale ta apurruak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Irakurle maite, Aitor'en izkuntza txukuna ikaskalegintzen zaran umetxo samur, guraso arduratsua jakitun eta gagoz guztiok uskurtza edo erlejiño baten baten armatzalleak, dauken indar eta almen gutiakaz, bai euskerea, bai oiturak eta bai Eskalera bera; zikindu, birrindu, ezbeartu ta ezereztatu asmoz ta gosez ixilean, gogor baiña, lanean odirala?

Kontu, gazte. Bidearen erdian urrutian, urriko agirian dagon sugetzarrak ikara sortzen dauko baiña, agertuta dagonean, astia izaten dogu erabagartzeko, burrukan egiteko naiz iges egiteko. Bera arerio oso-osoa ez da.

Asko gaiztoago da ikusten eztoguna, orbelpen orbelpen ixilik eta leunki dabilkuna, tximel-ziztril oton-oton ortzak jarri naiz txorkatillan kiribiltatzen yakuna. Kontu andia izan ba, gazte, narraiz kaskar edentsu oneikaz.

Koipe-lapiko

Anaitasuna, batasuna, Arantzazu ta Errendetarra orra emen ba itz koipetsu zuri-zuriak, asmo on uguziak, esanak ba'lira, oso gozo ta altsuak.

Bide-arlo andiak eginda eskeiñi euskuezan orragoak bazen buruargi ziranak. Anaitu ta bidean gaitean Arantzazu'n naiz Petralanda'n, eginda bideak zabalagotu ta edertuteko. Zorakeria litzen bide barriak egitea mendi baldarretan, akerantzekoentzat bakarrik izango litzakezanak.

Euskaldun-fededun

Iraila'ren 13 gn., erri batetik eta beste batetik ibilli ondoren aldi ontako odoi illunaren erdian ezautu gurarik, jarraituan dagozan itz oneik euskuzan, samin eta oñazez beterik, baiña miñe zauri barik, apaiz jaun goragarriak: «Euskal trakestu, Euskalerra ondatu, ta Jaungoikoa izena estaltzen eta aztu-arazoten diarduen gizon txoen azpikeriak, askok uste-dogun baiño zuzen sakonagoak emon dauz. Euskaldun fededun izena izatea amiltegiaren ertz estura eroan daukaten ondamendira; eta naste baltz lotzagarri on apaizkiak, abadekiak bere, barruko dira».

Jaunak; andrak; ba-dogu burua non nekola. Izan gaitezkan zurrak azegariak jan ez-gaguz.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Uri-zarra

Solo-lanetan aidak, sasia katez lotutako aintzaren beak, eta oilloteagiko jaun arroaren kukurrukuak oraindik bizi-bizirik trauntan daben auzo legian izan nintzan. Urizar dorre-etekeo katu zarragaz. Katu onek 83 urte ditu bizkarrean, bai-ta zaepi luki edo azegariren maltzurkeriak bere, kolkoan.

Ate nagusia, eup! egin ondoren sartu nintzan barrura, sukalderaño, eta mai beteari aurrea emoten eutsala ta bigarren belaunaldiko aingerutxoak altxoan eukala aurkitu neban. Santa Lutzi ganeko atsaren orpoan bigi dan katu begikoa, Serapio urtesua.

—Kaixo, Serapio, adizkide.

—Kaixo, lagun zar.

—Bizkaian jayo dan aldizkari barriarentzat barri billa natorkezu. Elespe'tarrak buruz eta etxe onetaz zer esan zaizkit?

—400-500 urtez onantz oraitarte emen jayo izan diran guztiak Elespe abizona izan dabe, eta orra emen non doguzan izen bardiñeko elespekume bi bere.

—Etxe oni «Jentil-etxen» bere deitzen dautse, eta gizon aundi begibakar izugarrien bizilekua izan zala bere maiz, sarriaskotan entzun dot.

—Bai, olaxe da. Esate orreik baiña, neskatillak illuntzean goiz etxeratutako eta ume negartiai lo-arazoteko esaten ziranak dira. Morrosko aundiak bai-ziran, orainguok txikiak ba-gera be. Neuk ezagutu nebazan ezkaratz ontako atepaan makurtu bearrean izaten ziranak.

Etxeari buruz

—Arrati'ko mugapetan eztozu ezagutzen aulako beste etxerik. Nork, noiz eta zein asmotarako egiña izan zanik esan al dautzazu?

—Nork eta noiz egiña danik ezin dautzut erantzun, zertarako egiña izan zan beronek diñausku.

Begiratu: Or dozu burdin sendoz esitutako leioak, eta emen doguz txiki biribillak, bai-ta estu luzangak be, barrutik at, kanpora tiroka ekiteko berebizikoak. Supinak, kañoiak bere ba-ziran emen. Arteaga'ko abadegaien etxerako bidea artu eben eta arrezkero barririk eztozu izan.

Etxepea sakon-sakona zan. Sapaitik zintzilika umeentzako jolas-tresnak, bolatoki ederra ta zaldientzako uraska apaiñak ezagutua nozu. Abelgorrientzat bizileku bihurtu ta baserri eran jartzeko lur ta arriz bete genduanean or gelditu ziran betirako aspiraturik arrizko txirlo-bola ta beste gauzarik asko. Ezin ukatu ba, bertako lenen bizitaleak jauntxu andiki gudazaleak ziranik.

—Jentil basajaunak izan baziran orraitio, elei-zarako bidestari oñetako urratze geiegirik ez eben egingo.

—Itaun-galdera orrentzat ez dot erantzunik, azken tokia baiña, eleizan izaten eben, eta ez ala-olako tokia, gorpu bi naitz iru batera eortzeko zan, eta gainera burdingorrikoa, kobrezkoa. Eleiza erre ta barriatatu zansan, aldi artako txauburu edo parrokoak saldu egin ebala zabaldu zan, baiña, eztozu harri zurrrik, eta ba-litzake Bilbo'ko erakustetxe, museoren baten izatea.

—Eta ateburuko armari ori?

—Begirakada asko ikusia da, eta bat bakarrik izan da orromatarren garaihoa dala esan dauana. Iurre'ko kapitoi militarra.

—Agur, Serapio. Emen izango dozu AGUR gazte kementsua, emen izan dogun alkar-izketaren barri Euskalerra'ko txokorik ezkutuenetara eroango dauana.

—Agur, adizkide. Euskeraren osasunerako ezer onik egin al ba'dot, nai dozun arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

AGUR'en irakurle zintzoak oraingo onegatik bere lan aguratuakaz, zaartuakaz jokutzen dödala esango dabe, ta egia danik iñork ezin ukatu.

Egia da, bai-ta, neu bakarrik enaizala atzerakuntz onen errudun. Beste aldizkari batera bialdu neban, garaiz; egiaren eztena baiña zorrotza izanik, etzan izan argitaratua, ta emen nator gabonsari garratz ospindun onegaz.

Durango'n izan zan euskal-idazti-diskoen azokari azalpenak egiteko asmorik eztoz, beartuta nago baiña, odolak agintzen daustan ezker, Durango'n bertan egun aretan izan neban jardumal-ditxo, barriketaldia azaltzera.

Ikusmira egiten ari nintzanean, Anaitasuna'ri azal-ikusketa egiten ziarduen bi gazte-gana aurreratu nintzan, Agur eta Anaitasuna eskuan nituala. Eta naizen baiño be kokolo-mokoloago aurkezturik, H'ren eta H'rik ezaren zergaitia arren eskatu neuntseen.

Lertu ta zatitu ziran odei balzak. Idigi ziran ur zikin-iturriak, eta, oxñaren ondoa, naiz-ta zikiñez bete izan, iñozkorik garbien ikusi neban. Eta ona emen nire itaun eta eskariak emondako erantzunak:

—Erria orain arte, Erroma'ren otsain izan da, gotzaien morroi ta eleiztutu. Erreboluzio progresista baten bearra izan dogu, ta ikurrin bezela H jaso ta zori onean besarkatu genduan.

—H ori zori oneko ta garrantzizkoa dalarik, zuok eztozue oguzten, esaten H'rik.

—Begiz ikusteko asmatua dogularik, ez arduratu entzun ezagatik.

—Zeintzuk eta norainokoak izango dira progresoaren bideak?

—Abando'tik Sukarrieta'ra baiño zabalagoak, mugarik gabeak.

—Eta gure Erri gaxo onen etorkizuna zuria ala baltza izango ete da?

—Etzaitz larritu. Erria ta H'a iñoz bere eztira galduko, «museorik» izango dan arte beintzat.

—Orren gazte ta burrukarako ezi dozuen atxe ori, museora begira jarritako ikurra, bear-bearrezkoa al da euskeraren batasunerako?

—Ez, eztoz bearrezkoa. Batasun-ikurra H, naiz-ta erri banatzallea izan, mito zar naskagarri ugariagiak bastertzeko bere osakirik onena dogu.

Kokolo-mokolo onek indarrik ezeukan geiago entzuteko, ok egin eban entzundakoakaz eta gibela erreta etxeratu zan erabagi sendo-sendo onekin: Ez dot irakurriko «H» dun irakurgairik mugaz emendikoek egiñak danean. Eta zuk, irakurle, azterketa sakon-epetsua egin ondoren, bialdu AGUR ontara zeure aburu edo eretxiak.

Urtebarri zoriontsua guztioi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Urte zaararren joanak barria dausku ekarri, eta gure AGUR, euskeraren bizigarri bizkorra, Erriaren biotzean azkar, ibiltari.

Euskalerrri guztia dot biotzeko, eusko irakurlea gogoko; gaurko lantxo au baiña ormenka ta andi-andika eskubareakin batu ta bildutako barri labor oncik, Euba'ko Etxebarri'n dodan izeko Mari, AGUR'en arpidedun barriari, eskeintzen dautsadaz, bein betaurretoen ganetik eta azpitik beste bein begiraturik, eta zabal-zabal ezarriarik loba ta illobai irakurri dagioen.

Aldi ontan jolas, lan, kirol, gau, egun eta abarrentzat neurriak doguzan eskero, zergaitik eztozu txurrut-neurririk? Bear-bearreskoa dogu ba, gure Agustin'eri jazoten jakona aintzakotsat artzen badogu. Iluntzetako txurrut geseak neurririk barik egiteagatik, matxondoak igartuko dirala-ta bildurak erazota bigerkoa gaurkotu guran, ok egin dausku gizon onek, eta txingar-ganean, erreko ogi-kuskurragas epeldutako ardaua espada esin edan besterik. Au zori txarra, gizonarentzat.

EIZTARIAK

Aizebelar'go sakonera (Euba'n) basurdeen bizi-leku bihurtu zala-ta, ausuneko eiztaririk panparroienak joan ziran goizean goiz, Isagirre jatetxe ospetsuan basoarentzasko ikasketa ta oarrak egin ondoren. Jarri ziran, ba, bigurutzetan, eta txakurrak azkatu.

Txakurrak auka-mauka asi ziranean, bost basurda eder mendia gora jarri ziran, eta oncin zai egoan morroskoari jazorikoa... emen dogu:

Dardarka asi zan, izkillua eskuetatik beres galdu, uste gabean prakak busti ta kornorta galdurik lurrera jausi.

Beste lagunak, geldirik egote ta itxarote luzeakin aspertu ziranean, gora ta beera, erdira ta ertzerara jo ondoren eta lagun gabekoa il-itxurao aurkitu, bikarrean eta tataras txandak eginik, Arkaitzerrotara jatsi eben. Eta etse ontan paitar espiritutsuak gaixoari edanarazo ta asun-igurtziak egiten ziarduela, an agertu ziran kurrin-kurrunka aitatutako basurda, Arkaitzerrota'ko nagusiaren «txarriak».

ONDARROA'TARRENTZAT

Emen izan dodaz sei bilbotar goizollandako, asken igarotako udan (Garillaren 9'gora). Plentzi'ko ondartzan Argoitia nebarrebakin, Xabi, Luis, Juan Mari, Patxi ta enparauakin izan gan gastediagaz arratsalde alai jostalari astueziña izan ebenak.

Nigaz izan diran ollandak begirakadak eginak dira egutegi barriari, ta, deika bere asiak dira uda zoroari.

Lora-txorta boskotsa osotzen dabe naiz-ta ez izan euskaldunak, Euskalerrriko txokorik eskutuenak illean bein arakatuten dituan aldizkari au ezagututen dabe, baita aukeratu bere gorantzi ta agur sutuak igorri edo bialdu ta ondarrutar gastedi euskaldunakin artu-emon-lokarriak sendotzeko.

Emen dozuez ba, Ondarrutarrak, AGUR'en orrialdeak, eta bilbotar neskatillak zuen orantzunaren zai. Izenak: M.º Karmen, Beatriz, Juli, M.Bi eta Isaskun.

GORANTZI TA ESKER

Arantzazutarren semebitxi dan Aita Peli'k, P. Rico'tik bialdu daustazan barrien artean gorantzi gizen-gizenak izan dodaz erri osoarentzat. Eta nik, eskerrik bereonak Zeanuri'ko amama Mari, J. Ozerin'en emasteari ta Ipiña'tar Puri Arantzazugoitikoari, urtero-urtero euskaldunago agertzen diralako. Baiña bates bere Errekagorri entzutezuaren loba Errosa Mari'ri, jaso neban, eta emen dot, niretsat lenengoz egin eta bialdu zeustan idazki txukuna; euskalduna. Jarrai olaxe, atzera begiratu gabe.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Zein da gure artean euskeraren aldeko ezertxorik egiteko gai ez danik? Diruzale sekena, ordi ustel, txoriburu ero-zeroa edo, barrenarra, kontzientzia lotan daukanen bat izan bear, nai ta nai ez.

Semez tolosarra ta bizitez eibartarra dan Larrabiaga'tar Mikel'kin izan naz, bigarren aldiz, Bilbo'ko nasan (muelle); eta euskerari ikutu ta aitatu batzuk egin ondoren, Eibar'ko ALFA lantegiak beren izen eta entzutearen zabalanderako egitiak izan dituan idazkorts apañetariko bat jarri daust eskuan euskeraren onerako lan egin dagidan. Ona emen Mikel eta biok non aurkitzen gareen ba, AGUR ontan, dogun pitia ta aal dogun gustia ama izkuntzari eskeintzen. Eskerrik asko, Larrabiaga; eta Arrate'ko arkumeak on-egin dagizuela.

MENDIZALE KAKATSUAK

Gipuzkoa'ko mendi basotxuetan artzaien eta ardiaren ondamendi ta zintzarri-lapur izan diran lako notin naskagarriak Arrati'ko mendietara bere jo dabe.

Dirala urteak, Areatza-Villaro'tik Gorbea'rako bidean, Karkabitueta'ko etsauntza, baso-etxe edo dalakoan zegoan gustia ebatai, ostu, lapurtu eben, etxeakin jabetu, ta azkenez tsarri-toki bihurtu bere bai; ta jabe ta nagusi ziranak... idilik egon bear.

Oraingo makurkeria Kerexako-atza deritsan etxeburuan izan dogu, eta eziera gaixtoaren umekeri ta lapurketa egin dabena kontzientziaz eta nongotarrak izan diranik naizta ez jakin, ondo ta ziur dakigu orain arte jayo izan diran kitanu-ijitorik ez dala izan mendi aretan. Beraz, olako gaztedi zaputz ustela arantzetan eskegiko bagendu, artzaintzak nasaitasuna, ta, iturriak iturri izango litzakez.

AGUR, BADIOLA

Eskontzaz arantzazu'tar oso-osorik egin zana, Badiola'tar Yoscha, barri oneik agertuko diraneko Ameriketara izango da.

Eritik orren urruti ta emazte-umeengandik burua bakartuta nabaitzean biotztaupada latzak izango ditu; beragaz izango dau, bai-ta, garratzaren gozagarritzat erritarrak batez bere gaztediak agertu dautson ongi-naia ta abendaren ikutua.

Agur-jai bero-beroa izan da ba, Arantzazu'n. Fasie'ren auspoaren inguruan jolastu ziranak kulunka ta sabuka etxeratu ziran, lertuta.

ARTAUEN ETA NEGUA

Artaundarrak, Gorbea inguruetako mendi-tontorrek suriz jantzirik ikustean dardar-keta nabaitzen dabe. Negu ontan baiña edurrrak baiña gogorrako izotsak, leiak ikaratu dauz.

Auzuneko katurik geienak otzak il ditu (jildorenean bi), eta an dabiltsaz erbarrenean aterik ate oillandatsuak besapean arturik katuakaz trukea egitcko.

ERIoTZ TAMALGARRIA

Eriotz guztiak tamalgarriak diralarik mingarriagoa izaten da adizkide naiz ezagun gazteen bat betirako galtzen dogunean.

Orixe bera gertu edo jazo yaku gazte gordiña izan zan Iriondo Igorre'ko seme zanagaz.

Otoz-otoko ezbearraren ayotz zorrotzai eratzu eutsan, lanean ari zala, 18 urtetan gaztetasuna ta bizia. G. B.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Adimenez labur-motza naizelarik, landai edo istori zarretan sakontzeko ez dut almenik, egun batuko negar-zotifak eta badarra baiña, gabeko lokolozkak amarrazoten daukuan ezkerre, ta aztutekoak ez diralako, joan zan udaldian zan ez genduzan eta izan genduzan jai batzuei astinaldia egitera atorkizue.

Aingeru-erria irabaziko ba'dogu, Kristo'ren irakatsietan bete bearreko bat parkamena dogu. Lurtarren arazoetan harria dana parkatu ta gastuari amen egitean geure burua ta Erriaren izatea ondazten doguz, eta bide ontatik bere, nire ustetan, uts dagigu. Beraz, bakoitak kolkoaren agindua bete dagiala, arratiarontzat astuezifak, Euskal-erriarontzat jakingarri mingots diran gertaera onak irakurtzean.

BEIN BATEAN

Arantzazu'ko gazteak erriko jaiak zirala-ta, Arteaga'ra jo eben, eta, bai-ta porrot egin bere. Ormetan jarri bear dnan orriak zorionez, euskeraz egifak egozan, eta endore edo alkate emeak, zoritxarrez, debekatu.

Arteaga'ko gastediak, beste bein, erriko jai nagusirako zerbait egin bear zalata, eusko-jaitxo bat egiteko erabagia izan eben, erabagia baiña ebagia izan zan le-nago aipatu, aitatu dodan agintariaren aginduz.

Ziur-ziur nago Arteaga'ko eusko seme zintzoak asarrez izango dirala onen-bustegarrenez erriaren izena ilustean (ederaz Castillo-Elejabeitia).

Atalontan On Pedro apaiza ta berari agindako omenaldia dodaz buruan, alde batetik; eta bestetik, argi ta garbi ilusia izan zan apaiz jaun zar apalarenganako ezin-ikusia.

Eldu zan, eguna. Emen ziran bertso-larik, dantzariak, eta, erria bere bai.

An zegoan erriko guztiena izan bear lukan onparantza-zelaisa, jai egiteko ordua burutu ta eldu zanean baiña, ezer singo ba'zan, eleizaren itzal eta keriz-pean moztotu bear. Au zoritxarra! gorroto zaarrak aztuteko baiño barriak bizuteko obe dana.

* * *

Zeanuri'ko Undurraga'n bere, Sanpedroetan, ba ziran bertsolari ta euskal-ahetifako jaiak egiteko. Baiña, agintaria-ren agindua (erriko semearena); «agintea eskuan izango dodan arte ez dogu izango tju orretako jairik», izan zan, eta, bete bere bai. Zer izango ete dau gizon arek bere barru-barrenean, agintze-giltza esku aldatua izan danean!

Artaun'en bere (Dima'n) ba ziran iñoiz ezlako eusko kutsudun jai egiteko-tan. Itxasotik urrutian bizi arren baiña, ingurumari jarri cutsoen sare maltzur-rari, legeari sudurra gazi-gazi erakutsi, ta, atzerakada egin bearra izan eben.

* * *

Oba auzotegian (au bere Dima'n) ostera, asmo ta erabagi guztiak burutuak eta elduak izan ziran.

Emen bere ba ziran sare, beatzarri ta lakiro edo tranpak. Oneik guztiok azpiratzeko paparrean bizardun gizona bear zan, agertu zan, eta jaiak poz-pezik asi ta bare-bare amaitu ziran.

Emen doguz joan zan urtearen buruan, andi-andika pillatu ta laburki azalduak, Arratia'n izan genduzan korotz baltzak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Udabarriko lorea

AGUR onen irakurle sutsua dan Zurzo'tar Pedro Mari, aita egin da. Bere emazte Isabeltxo'k lenengo alabea izan dau udabarriko lenen-egunean, eta ugazatzean, batea tutzean, Iratze izena jarri dautsee.

Ez aztu, Pedro-Mari, zuk edan zendua iturruko ura umeari emotea, euskaldun onak eta osoak bere aurrerantzean izan daitezela Zorion, guztioi!

Gaztedia

Antzina bateko egunetan, arratiarren artean beintzat, ez zan izaten zirikatze bearni emengoek angoai arrika ta lepobero egiteko Makil-endarrez, politika, izkuntza-arazoen erririk erdiak dadar-ikaraz eta odolduta bidiran une garratz ontan, gure gazteak, inoiz korik maiteen, Dima'ko Oba'n alkartu zira Zornotza'ko ta Larrabetzu'ko gaztediakia.

Bertako alabea izan eta gazte zalarik zan neskatillearentzat, gaztediak eratuta eleizkizuna izan zan, eta mezearen buru ranak bere, apaiz gazteak biak.

Soifü joten, Arteaga'ko Bernaola neska mardula; kitarra ta bakar-abestiak Artztza'ko Patxi'ren esku egozan. Txistulari be ba-ziran tarteko, ta erri gazte kementan ren abes-txanda izaten zanean, eleizatxoak teillatua gorantz joiala irudian.

Bakoitzak eroan eban bazkaria guzti tzako izan zan, eta guztiena zana bakoitzare tzat. Alkar ezagutu, barren-barruko kezka alkarri azaldu ta arratsaldea bakerik osoena emon ondoren, beste bat arte agurtu zan maitasunean.

Alperrik jardungo dabe auzune arte narrazki gitxiren mingain luzcegiak lupua baltzen, obatar jatorren gogo-biotzetan bai ez da aguro aztuko an izan zan gaztetan ta bakearen ederra.

Emakume madarikatua

Urrutizkiñak tirrinka inarduan. Entza gailua jarri belarrian ta «kaixoka» asi ber rik ez, bitartean izan zan andrazko txan rrak: «estan habaldo en vasco» esan, eta deak ebagi.

Jazoera onen ondorengo nire otoitzen turik izan ba'dau... zeruetan dago on ezkeru.

Arratia

ERRI-ZUZENDARI BARRIA

Endoretza edo alkatetza esku-aldatua izan da Areatza'n, eta lemazain barria Garibi jauna dalarik, erri osoa agertzen da pozik eta itxaropentsu; errikideentzat onurakorra izango dalako ta eskubide ta neurri bardiñak guztiuentzat; baltz eta zuri, aker naiz ardi.

Arazo ontarako leen izan eban deiari ezezkua erantzun eutsan ezker ta baiezkoz

oraingoari, oinarri sendoan tinkotua dala uste ziurra dogu. Gizabide arauak bete-arazo ezese, betetuten be jakingo dauala, ta lupudun ezten zirrikatsalentszat, urte batzuetan, zeregifilik ez dala izango.

Bigarren aldizko batean jarritako erdel-izenagatik edo... aspaldidanik izan da, ta da, Villaro erdel-lur samurra; gastelera gizon da, ta euskerea atzerakadan. Aldi onetan baiña, gastediak nai ba'dau, berretuko da, goi-maillako ostoporik ez dau izango; erria nagusia-arentzat eta nagusia erriarentzat izango dira.

Agur eta sorlon, Gabiri! Auzo-errietako lemazainentzat eredu bizi ta argi disdiskorra izan zaitez, osasunak lagun dagizula.

PATXO

Areatza'ri buruz ari izan naizen ezker, mutil onen izena ta lana aitatzekoak dira.

Patxo'k, izan dan toki guztietan gartsu txalotuak, kitarra ta abestiz gastediari euskal-landa'ra deika diardu, eta garai-ikur, sari ta txalo askoren artean, bat gelago jarri al izan dau: «ABRA III» izenekoa.

Patxo non, gazteak an, izaten dira. Euskerari ta Erriari abestuten dautso. Abestiak zati berezi bi ditu: belarrientzat gozamen ta biotsarentzat janaria diranak. Janaria, abestiaren esan-naia edo mamia bera; aguro uxatzen dira baiña gaste buruariñen barrenetik, eta gure jaien ondorenak eta lorratzak, motzak eta laburregiak sarritan edo mais, mamia ta janaria ausnartuten ez dakigulako.

Ekin egik ba, Patxi, bide orri: «jagi, jagi... lotatik» gastediari dei egiten.

ERIOZEA

Euskerazale osoa ta bete-betea izan dan Arregi'tar Gabirel, AGUR'ekin arpidetua, joan yaku betirako (G. B.)

Illeta-eleizkizuntan izan zan notintza ugariak, ondo argirik iragarri eban gizon ona ta adiskidetsua izan zala. Lur zuldartu ontako lan eta nekeak Bilbo'n amaitu situan, eta soin-ondar ilkorren azken-tokia Bernagoiti'ko illerrian izan dau.

Aldizkari onen bitartekotasunez otoi be-roak Gabirel zanaren alde, ta atsekabe-agurra bere sendi saminduari.

SANTSON BAIÑO SENDOAGO

Urteen burpillean belaun bizi izan ondoren eta aldi onetan entsuna dan esakera zarra: «Arrati'ko zekorra txikerra baiña go-gorra» egi biribil eta osoa dala agertu dausku Bilbo'ko Atxuri'n izan dogun ezbearrak; etxe zar baten barren-zatia bera etorteak.

Esakera zarra indartu dauana baiña, ez da zekorra izan, gizona da. Ez da txikia ta er-kiña be, morrosko ederra da-ta. Goian izan zan sapaia aspian artu, ule ta oin, soin guztia estaldu. Azurrak ausirik, mailluzkaturik eta eriotz-ayotza lepoan eukala, eriotzari iges-ginda, osasun-bidean aurrera egiten ari dana, Lemog'ko Mimentza'tar Zelestin da; mendi eta basoetako bidetxorretan esaguna, euskera zabaltzale jatorra ta AGUR'en arpideduna. Santson baiño gogor-sendoagoa.

Astistu ta nasai bizi dan adiskideen batek ikusteko erarik izango ba'leu, ona emen zaurituaren sizenbidea:

Peres Galdox txaide-kaleko San Antonio osotetxean, 3'gn ofizan, 311'gn atean.

LANDAJUELA'TAR A

Arratia

Zer ikusiko ta zer entsungo Arratia'tik Barakaldo'raifoko ibiltaldian barri-ederrik asko kolkeratu dodaz, baiña, aizetan eta aorik-ao dabiltzazan barri guztiak esan eta azaltzeko aldirik egokien bizi ez garalarik, mamitsuena izildu ta mirrizenak agertzeko asmoz nator.

Kintana'tar Josu barakaldotarra dogu, arratiar askoren lankidea, ezaguna ta euskera ikasten gogor ari dana. Eta one emen berak dihoana: «Zenbat eta geiago alegintzen nazen ikasten eta irakurten, ainbat gitxiago ulerten dodaz aldizkari batzuetan argitaratuten daukuezan lanak. Beraz, *Agur* ezagutu neban eskero, *Agur* da nire lagunik onena, ulerkorrena, errezena ta erderakin eskondu ez dana».

Josu'ren emasteak seme eder bat izan dau. Ugatzatzean Zigor jarri dautsoe izena; eta bere aitak, Josu'k izan dauan poz neurri gabea adierazo ta euskereari indarra emoteko, emen dogu, lagun eta adiskideen artean banandutako txokorretan ikusi doguna, txukun eta polito egiña: «Zigor'en Jaiotza, 1971'grn Jorrailak 28» Zorion sendi barri irukoteari.

AITTEAK LURRA JO

Zeanuri'ko seme Angoitia'tar Biktor, izerdi-kiratsik gabeko ogia jatera Bilbo'ra etorri ta emen bizi dana, aitz-mustur garaitan akerra baiño azkarragoa, perretxiko billaketan sagua bera baiño be bizkorragoa ta astean bi aldiz Gorbea'n isaten izan dana, belaun-ikareak jo dau. Alabeak eta suiñiak lenen-semea izan dabe, Garikoitz, eta gure gizona, aitate egin-dala entzutean, makur-makur egiñik eta Gorbea'ri agur gitaxo bat egin ondoren, esku-makilla atosteian eskegi dau. Agur, Angoitia.

JAUNARTZEA

Bilbo'ko Sendi Deuna'ren eleizan, ume euskaldunen lenen-jaunartzea izan da. Uri-barri'n eta inguruetan arratiar asko izan arren, euskal kristauen jalan gitxi batzuk besterik ez. Utsune a betetako baiña Zeanuri'ko Puxana'k iru bertso mamitsu abestu zituan guztion pozgarrizat.

ARANTZAZU

Zalbide auzuneko Iturriño'tar Juanjo'k, auzotegiko sagarrondoetan amillotsak maiteki ta jostalari abigifan diarduela ikusirik, Loli erriko neskatil bizkorrari deitu dautso Aita J. Jose'ren aurrera, ta ametsik goxoenez betetako abia eratu dabe; eskondu dira. Ametsok burututen Zoririk onenak lagun dagizuela.

IORRE

Aldi baten Atleti'n onenak ziranak, emengo gasteekin ostiko-pelotan jokatu dabe, adimenez epel diranai laguntzeko. Diru aldetik, buruz-atzeratuak garaille; amaika jokolari gasteen artetik, amabi izan dira Atleti'rako aukeratuak. Zaarrentzat mai oparoa ta txaloak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Naiz-ta eskuare edo eskutillakin Arratia'ko ibarrai narrua urratzen ekin, barri garrantzizkorik ezin billatu, ta Euba'ko Euskal jaira joan nintzan. Egurdian, Etxebarri'ko Yontxu'ren lenengo Jau-nartzea zala-ta, arratiar mordo ederra ezarri giñan mai oparoaren inguruan, eta bazkalondoko jardun eta barriketearen ekiñak agertu euskuna emen da-kartzuet:

Dima'ko Emaldi'n dogun Bernaola aitonak, ope bete gaztai ditu, dirala iru urte egin zituan; beratu naiz egosi ez dira biguntzen eta sagurik-eta gosetienak be ez dauke zer egifik. Olan izanik, eta San Antolin'etarako deia izan dogularik... Aita Leandro'k bedeinkatu ta bigunduko al ditu.

ERKOLEK.—Euba'ko baztertxo bateko auzu-nea da. Etxez, urri; zelai zabalak, landa ta beda-nez ugari. Emen izaten zan jaiaren edertasuna, uterik urtera, txepelagoa dala ikusirik, jai-eratzaille barriak jagi dira, jaiaren izena ta izatea lenagoko goi maillara jasoteko.

ARRATIARRAK.—Aitaturiko auzunea ta jaiia indarbarritu ta jaizaleai dei egitera etorrira, emen izan zan ba, bederatzi neska-mutil gogotsukin osotua dan talde barri-barria, «Oartzunak».

Lenengo, jaiari asiera egiteko, Euba'ko «Ibaiak» bikotearen abestiak txalotu genduzan. Bigarren, Patxo, garaitza askoren jabea. Ondoren, Goyena-ga'tar J. Anjel, abotsez gozo ta indartsu. Urrengo, Ander, oarrak eta azalpenak egiten, kitarrakin, abestu naiz bertotan berebizikoa dogu. Bostkarren, Ander-Belen bikotea. Seigarren «Oartzunak»; ta azkenean, entzuleen txalozko eskariari erantzuten, Ander eta Patxo. Ander'en maitasun-abestia baiña etzan izan polita bazen itxaropentsua oillanda gazte entzuleen biotzentzat. Adizkide, ez adi als-gindu neskatillen biotzak atsekabetuten.

ENTZUN ETA ERANTZUN.—Matrail-lanean, lokietatik izerditan ari ziran gizonetariko batek, Etxebarri'ko sukaldean: «Arratiarra izate-ko, nai-ta ez, panparroia izan bear». —Bedia'ko Olano'tar Yon'ek—.

Eta eubatar jatorra izateko barriz... tripazai andia izan bear.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

IREATZA

Egiz eta benetan onuragarria erriarentzat ireatzatarren oraingo endorea, Gabiri jauna. Kale edo txaideak troka-zulo ta arrankalduten zituezan zama-berebillik ez da iñon igri aldi onetan. Beti ostikopean izaten ziran urto-txakur ganorabakoak be urritu dira-ta, txura ona ta garbitasuna txoko ta baster jostietan. Garbitasunik bikaifena baiña enpantzan, plazan egin ebana izan zan, Bagilaren 6'gnean.

Aldi bateko poral-mikeleteen antzeko txapelez jantzirik etorri ziran nonbaitetik, goraka ta beraka oiuka, izkanbilla sortu gurarik. Eriko buruzagi barria ez zan okildu, ta agintze-makillea eskuan arturik, an bialdu dituan, aguro, etorri izan ziran bideetati, trapel eta arrokeri guztiak ezerezturik. Zorion nri alkate jaunam guztiontzat neurri bardiñak doxuzalako.

Mendigane.—Petralanda'tar Maren aititea, Mendigane'ko lokatzartean ondatu yakon berebilla atara ezifnik lertuta atxeratu zan, Zer itxuratan baiña! Lokatzartean galdu bai dituan oifietako ta praka!

ARANTZATZU

Antxiñako oitura zar jatorrari jarraituz ateroko osteratxoa egin eben San Antonio'ri eskariak egitera. Gure Jerbasio'nean, baserri-arentzat ostaturik egokienean, agurtu nebatan. Antxe ari ziran amarretakoa egiten, enar-emazte gazte ta urteetakoak, ezkondu izan ziran urtean baizen maiterik. Gure Arantzazu onetan ez dago Gipuzkoa'ko Arantzazu'n dan jakituririk, euskerarenganako jatortasuna ostera... jauntxo askorentzat eredugarri.

URKIOLA

Bagilla'ren 19'gnean giñan, eguzkia bere amagana joian eta ni bere etxerarakoa egiteko gerturik. Eta alan nintzala, Euba'ko gizon gazte, euskaldun zintzo batek agurtu sindun, kezkatu ta armin. Urkiola'ko apaizai oar-itsunak egiteko eskariakaz. Eta, neu bere alkaturik arratsaldeko seiretan izan zan meza aretako euskaldunekin emen doakiez itaun-oarrak:

Euskeraz izango zala iragarri ondoren, zergaitik izan zan bi-izkuntzatan meza a? Zergatik ez ba euskaldunai euskeraz, eta erdaldunai erderaz, bakoitzaren inkuntzan osotuta?

Agur ba, Estonba jauna, ta gogoan izan, aren, gure eskari apai au.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

DIMA

Etorri izan ziran era berean joan ziran, xilik eta apalik, Dima'ko jai nagusiak, Sanpedroak.

Gaztediaren eskurik eta eskubiderik ezaitik, eta erriko giltz eta agintze-makillaren jabe altsuaren gogorik ezak —ezbearren batezaitik arpegia zapitsu be ba-eukan-eta— ezer gido izan zan ikustekorik eta entzutekorik, eta erriko gazteak deslai ta noraezean Zeanuri'ko Urdarraga'raifio eldu ziran ango jaiia alaitu ta indartzera.

Astegunetan, Dima'k, atso-aguren eta zar santuen erria dirudi, ta jai-igandetan illerria dala entzutean, ez dogu larritu bearrik, eta nagusia ta morroia buztarri bitakoak diralarik, emen ez da ikusten bizi-pozaren izpirik,

Non dira Zamakola'ren zamakolatarrak, gorengo oillarra zanaren jarraitailleak? Zamakola'ren izen eta egiteak, pitean-mikean beti miñean, norbera baiña, lozorroan sakondu ta... or konpon, izurri adi.

ARANTZAZU

Erri piti onetako gazteak berebiziko mutillak doguz erri-kutsuzko jaiak eratuten, eta burukomin ugaririk izaten dabe erriko jaiak urreratzean.

Asken urteetan Udaletxe'ko laguntza mirriz samartxoia jaso izan dabe, aurtan baiña, naiz-ta urte bedartzua izan, beiaeren errapea inoizkorik leorren eta txaletara antzu, Eta gazteak gazte diralarik... auzo-errietako aizea artzea erabagi eben.

IGORRE

Ze tsaiuteko Andramariak izango ete doguz? Geurerik ezer nai ba'dogu ta katuari bizerrik kendu edo moztu bear ba'litzakio, gogorra izaten dau-ta, aurretiz beratu bearra izango yake Gurtubai ta Landajo bizer-motzaleai.

EZBEARRA

Jakin begie Dima'ko Karlos eta Luisito-Koldo'k, ezbear garratza izan dauala Lekan-dar Iñaki'k, eta Perez Galdoz'ko San Antonio osatetxean 423'gn. gelan dagola aldi luzerako, zoritxarrez.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Belatxikieta.—«AGUR» onek izan dauan oporralditxoan makifia bat jai, urtenaldi, ararorra ibilte ta abarrik izan dogu. Gaurko onetan baiña, belaun-giltzatatik makal gabiltzanontzat Gorbea urruti zamar dagolarik Belatxikieta'ra joan nintzan ezkerre, bertan izan zan jaiari (Iñaki Deunarena) ikutu-mikutuen batzuk egiteko gogo dot.

Lemona'tik gorako bidean, Elorriaga autotegian egin neban lenengo itxonaldia. Euskerazko meza izan zan; mezako D. Manuel, eta estutu neban bostekoa Landaitz'ko Iturriotz adizkide zarrarena.

Bigarren egonaldi ta amarretakoa Aramotz'go landan egiten nengoala, an, non agertu zan «AGUR»'en irakurle dan P. Mari artaundar gaztea, ta alkarren lagun izan giñan aurrean geunkazen bidetxorretan.

Bernagoiti'ko bideetatik, Euba'tik gora, Zornotza ta Lemoa'tik, igorretarrak Garamendi'tik eta artaundarrak atxartectatik zear, notintza polita alkartu giñan amabietako meza aretan. Eta meza aitatu dodalarik, zelan eta nolan ezkutatu Aita Luis eta Aita Eleuterio'ren itzaldi sakon-sakonak!

Kristo'ren landa mugapetuan oinak tinko erroturik, iturririk garbieneko urik eta gardenena eskeindu euskuen, lozorroan diranai begiak igurtzi ta itxar-arazoteko ta egarriz bizi garenon asegarritzat.

Ikastolak, ala-olako andereñoak, Juangoiko'rik gabeko ume-eziketak, gurazo naiz seme-alabai uko egiteak, sasi-ezkontza ta txakurmaitakeriak astintze ederrik izan eben.

Gogoan izan bada, Belatxikieta'ko pagopectan entzun genduzan irakatsi gogoangarriak, garratzak eta mingotzak, zoritxarrez. Jaso buruak bein eta betirako, etxean dogun etsai makur satorra azpiratzeko. San Joan'en suak suge, lupu ta mamarro kaltegarriak erretako diran lez, Erriaren egitik biztuko dogun suaren argiak, orain mitolati barri ta gero... mito izateko asmoz lanean ari diran sasi-jauntxoan jakiturizko auntz-bizarrak kizkalduko dauz. Illuna ta azpijana argira ekarriko ditugu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arantzatzu

MAKAILLAUTZA

Erriko tabernako Juli emakume gartsua, zirt eta zart utsak, Finlandia'ra makailotan berenberegiz joan eta beren begiz eta eskuz aukeraturik ekarritako arraiñakaz berebiziko pilpilketarik begikoena eratu eban erriki-deentzat.

Asi ziran, bada, bikoteak lanean, illintiak su ta ke, erratilluak pilpilka. Baratzuri edo berakatzak bere bearrezkoak zirala-ta, zartainkadea gertu ondoren, ots egin eban norbaitek berakatzik ez zala bear, eta lurrera jaurti zituezan.

Besteen batek, barriz, baietz! Bearrezkoak zirala. Batu zituezan banan-bananka (eskuare bage) ta... saltsara. Polpol eta mormorrari eragoion erratillua, kazuelatxo bat barriz, lurrera itxuli izan zan; orratio baiña, ezegoan alperrik galtzerik, eta arrain, arri-koskor t'abar barrienbarri ta beingoan ontziratuak izan ziran.

Lenengo saria Bartolo ta Tolin'ek jaso eban, bakoitzaren etxean sukaldea non dan ozta-ozta dakian mutilzar bikote plageak. Bigarrena, Juli - E. Ipiña'k; eta irugarrena (makaillo-buztana) Jon Elias'ek. Maiko izan ziranak: Segunda, Pepe ta Antxia'k zeregiñik asko izan eban orkoloa saltsarten sartu ta miazkatuten.

ESKONTZEA

Aldizkari au eskuan izango dogunerako, il onetako 5'gnean ezkontzekotzat izan ziran-da, Mantzarraga'tar Ester, Bixenti'ren besondo eplari maiteki loturik ikusia izango dogu. Zorion!

ANDRAMARIEK

Iurre'ko jaien iragarkairik ikusi ez dogun ezkerok, esatekorik bere ezer ez dogu. Zeanuritarrak egertu dauskuen cuskal-zalctasuna ta nortasuna ixil-lapikorako gogorregiak diralarik, emen doatsuez gure begientzat negargarri diranak: «Comidas del Pais - Cafe». «Ternera del pais y quesos de Gorbea». «Alquiler Mula China». «Viajes a Gorbea». «Especialidad en callos». «Cangrejos del Gorbea». «Bar para romerías». «Corte de pelo a navaja». «Comercio en General». «Vino Selecto, Chorizos caseros», abar eta abar, zaputz eta pautz. Noiz itxartu ta urtengo gara koko-zuloetatik?

Gora ta gora Manterola'tarrak Txomin eta Felipe, eta Mendibil'tar Alexander.

LANDAJUELA'TAR A.

Euba

EIZTARIEKIN

Gure Erri eta euskerarenganako aintz eta begirapenik andienean eratu ta egiten diran jaletan, ordu erdi bateko epearen buruan Etxebarri'ko labepetik urten gabe, España'n diran zazpi erki, probintzi zabalenetako eperrak eratsi genduzan.

Olano'tar Jon izan zan, besoak jaso ta bat bestean atse jarririk amabost eratsi zituna. Suertiak lagundu ba'leutsa... gelagotxo izango ziran.

Aldamenean doguzan Teo ta Mauma artegatuek dira orain, besoak jaso ta zeruruntz luzeturik mundu onen azken-egun larriaren antz eta irudizko triskantza egiten asi diranak: pin, pan, pun; dinbi ta danba. Goietatik beeraka datoz eperrak, galeperrak, ega-zati, buru ta anka; eta noraezcan aizetan dabillen lumategiak eguzkia bera bere estaldu egin dauku.

Ber-argitu da eguna. Bat, bi, esanez, asi gara, bada, makur-zutitua egiten eta txoriak metatuten. Lareundakak dira pilotuak.

Mauma'k indieper eder bat il dauala bere ba-diñozku, txapelokerren bildurrez baiña, sasipean ezkutautu daualata esku-utsik datorkigu.

Ixil-mixil elorriotar pospoliñen baten lorratzatetik dabillen Ernesto, alako orio-ontzi bidoi andi bateri daunbadaka ari da begia zorroztu ta sen onenean izateko. Zorroztuz doakio begia, eta orain goruntz jaurtitako txoletak iriztontzi biurturik datoz lurrera.

Lan ontan ari dala baiña, eperra ikusi dau egazka-tarrazka; jaurti dau izkillua lurrera, eta tximista baiño azkarrago eskua ezarri dau.

Arratsaldeko irurak dira. Gosearen gosez eta egarriaren egarriz ezpanetan bits-aparra dogula irakurleen osasunerako izango dan bazkaria egitera goaz.

ARTAUN DIK

Tomas Basarri'ren bakar-bizite latza leundu ta baretuteko dei dagitsuet, Mugarra'ko sorgin-landara, Zuazotarra, onein iztarsenide ta artaundarra; batez-bere neskazar, bizialargun eta ume askoren ama alargunai.

Guztiok jo daigun, bada, Mugarra'ra, Basarri adizkedearentzat zartzarorako laguna aukeratu ta eztegua gertatzera. (Batzarra urrillaren bigarren igandean).

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ARTEAGA

Indarraren indarkeria ta beaztuneko min-oiñazeak, erri ontako jaien jaun nagusiak. Umetxu gazte bigunak ziran gatz eta piperrez, su ta txingarrez, txistuz eta txaloz, makalduz agertuten izan dan jaiari, igurtzi bizikorrak egiten asi ziranak.

Txistuaren soinu txairo alaiak baiña, be-larrien batzuetan minbizia sortu-arazi, ta an joan ziran txistuak egazka, sasira. Erritarren beroa ta irakiña ertzainiek bakebideratu eben. Noiz igartuko dogu, betirako, gure soloetako txominbedar ugaria?

IURRE

Begoz erne ta zur 1935'ngoa «kintoak». Udagoiengo edozein alditan Yurrebaso'tar Mikel'en deia entzun al izango dabe aldizkari au bide izango dalarik.

Jo-ta-ke diardu gure Bekoetxe'k bururaste lanetan, gaztaroko adizkide zarrakaz mai zabal apatz bat inguratu naian. P. A. Etxe-barria'k egun aretarako eratsiko dituan oilla-gorrak eta erbiak ugari izango diran ezkerok, bazkaldarrak praka garritsuetan aurkeztutea obe izango litzake. Egon, bada adizkideok, AGUR onen zain.

Txato-Bizenta'ren etxean alako biotz-irri gozoa izan genduan. «Beti-Bizkor» Bazkuna'k orman kakotuta orri aundi baten «euskal-euskerazko» oarmen eta iragarkiak ikusi al izan genduzan. Gora Beti-Bizkor!

ARANTZATZU

Artetxe'tar Lontzo, emaztetzako andratxo baten eske Urkiola'ko baselizan zazpi aldiz belaunikotu ta zazpi aldietan Andoni doatsua-ren ezezkoa apalik entzun ondoren, Pitiño izan dau arrezkeroko ezkontza-egiltea. Eta Pitiño berak bere, gorengo baserri-etxeak eta iba-rretakoa ixil-mixilka arakatu ondoren, oporra ta porrota baiño besterik ez dau etxeratu.

Ezkontzamiña osorik galdu ez dauan neska-zarren batek maitasuna, norbaiten beroa ta abi gozoa biribildu nai ba'ditu, idatzi zuzen-bide onekin: Lontzo Artetxe, Olarra, Arantzatzu (Bizkaia) Edo beste onkin: Pitiño Ordeñana, Arantzatzu (Lenengoa, ezkongai; bigarrena, bitarteko ari dana).

LANDAJUELA'TAR A.

Arantzatzu

MIZMERUA

Loratuten adar eta orritartean bere burua eldi bigunduta ikusi baiño lurra jo naiago izaten dauen igalialako gizon gogortxa, gure Errekagorri.

Piper-igurtzizko esaerak, zirikalari zorrotza, neskatillai begirakada txeratsiak eta zazpi luki zatituz maltzurkeriak kolkoan ditun aitonaren ixil-ekizkak nator gaurko onetan.

Urteetako ego-aizeak eta urari gorroto izateak —zirindu egiten dau-ta— zimel-ikutua egin dauen alan bere baiña, beti gazte ta mizke etxe-osteko makatzpean, ama Mari'ri (emazteari) gezurtzen batzuk tolestu politean esan eta sinistu-arazoten erbarrenerako egarriak jotzen dauanean.

Illuntzeetan, saguzarrak euli-eizan asiko diranerako, mizmeru gordiña makatzpean buruari aska, ama Mari'ri zearka begiraka, gezurrezko txakurritulen bidez beerako baimenaren eskea egiten.

Eta, «zoaz, gizontxo, Jaungoikoa' gaz, eta biurtu angeriakaz» entzutean, Errekagorri errian, lau zankadan, ogei urteko mutillaren praktetan.

Eztarria neurritz ezotu ta osasun-barritu ondoren, txerako bidean barriro. Eskumako makillatxu bide-lagina ezkerrean aldatzen dau, esku utsitua burura jaso ta bosteko betean txapela kendu; zirriborrozko ailearen semearenak egin, eta izartegia eratu ebanari orren-otoika ekin, eta bidean izaten diran arrikoskorak ostikoka bastertuz apal-ordu egokian etxeratu, makallo-buztanezko naiiz lebatz-buruzko puzusalda gozoa emaztearen ondotoxoan jatera.

Agur, ailete Errekagorri, Guztialdunak beste orrenbeste urtetan osasuna emon dagizula, eta ama Mari'k zaindu zagizala, maite-maiteki.

* * *

BILBO'tik.—Uri onetako Baserri-Azoka, Semana Grande guztiak baiño itzaltsuagoa, ikusgarria. Nongo «prensa bulegoa'tik» jasoten ditue baiña baserriar eta artzainak, bei, zekor eta txakurren erdelizenak?

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

AUNTZ-EUSKERA.—Gaurko barri oneik (itzak eta putzak) Arratia'ri dagokiozanak ez dira, baiña bertoko altzarte baten abaroan izan neban biozkada zoroak bultzatu nindularik aspaldi basterturik neunkazan aldizkari ta irakurgai arloteak irakurtera, emen doakizuez arratiarren jakingarrizat, baita bere, Euskalerrri osoarentzat, euskera-erderaren sasi-etzkontza indarkerizkotik jaiok izan diran sasi-kuma ugariak.

Zabaldu, ba, begiak, eta jarrai... al badozue, azken «ultimo finerarte», «sentidu absurdoaren kausak», «trajerietako trajeria bat», «absolutugintzan frogatutako soluzioea», «estratifikazio kontzientzi ideolojiko», «sekso militantearen kontzientzia historikoa», «progresasioaren atentziozko forma clementala», «protesta, errebelde, mugimendu eta klase umilaren momentu estratejiko», «klarki analizatu bear diran propagandako liburu eta errebistak», «guda mundiala eta karakter indibiduala», «planifikasioa markatzen dun fenomeno», «demokrazi modernoaren lejitibismo modernizatu», «autore aislatuak oprimiturik duten kapazitate», «komentarioen zapore eta konfidantzan kausitzen dan informazio», «sabi-duri failoaren kortesia mancrak», «deliberamendu inplikatuak frenatu», «sinpleki anparatu, sostegu ta esplotatu», «usantza pratikoa libreaki probokatu», «istante presentean liburu manuskritoen errealitate propioak», «eskema pratikoak kaso jeneraletan partikularki esplikatzeak», «afekto, sentipen eta borondatearen poderios noblesiaren testimonio personal», «abar eta abar», «inportant», «kontrast», «konplet», eta onein irudizko makiña bat itz ba-ditut metatuta nire «Prensa Bulegoan». Irakurleak «ok» egin ez dadin baiña, amaitzea, bukatzea obe deritxot oar onekin:

Batasunaren izenean batukeriaren ardatzean inguruka, laztanka ta zurikerika dabilkiguzan marrazkilloen (caracol) «kausari» «kasu» egingo bageuskio, geu izango gintzakez, eta inor ez besterik, gure Erri ta ondasunen zaputzaille, etxekalte ta iltzailleak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Arantzazu'ko gaztedi geldi-eziñak jo ta ke diardu antzerki zaarrentariko bat ikasten. Lotazillaren sarreran errikideen aurrera agertzekotan dira, eta geroago, Lezama'n eta Aramaio'n. Txerren-deabru, artzain, gotzon eta arratiar neskatillarik begikoenakin osotua izango dan taldea ikusteko eria laster datorkigu.

* * *

Bustarpeko idiakaz solo-lanetan, landetan bei-zaiñean, asto koskor bclarri bccrakaz errotara ta abar, edonoz eta edonon ikusten izan genduzan, ibar onetako baserritar andrazkoak, oraintzu arte. Orain baiña, egunero ta eperik barik biziera obearen billa aurrera ta aurrera egites doakigun burpil-txirindulariari loturik biziten asi giñan ezkerotik, galduaz joan dira baserriaren irudi biziak izan diran etxeko andrak.



Akulupeko ididun gonadunik ez dogu ikusten, eta astoaren atsetik errotetara doanik bere ez. Orain oso besterakoak ikusten asiak gara: itxuraz eder odol garbiko eper txakurrak soka-muturretik dituela, arrorik eta txairorik, gure gaurko amonatzkoak, goiz-illuntzetan.

Batukeriaren arautegiari jarraituz, au lez edo aulan esango neuke nik: «hori bait dela hori, progresaren progresiozko progresioaren progresamendua».

* * *

Aspaldiko Patxi Lemoa'ko Flecha auzotegian bizi danakin izan gara. Ordubeteren buruan, izerdi patzetan, gizonen arteko korapillo guztiak askatu ditu, baita zakatuak lotu bere.

Aberatsak narru gorrian itzi ditu, komunismoa ezestatu, lankiderik geienak errukirik barik jo... bere burua bakarrik gizon agertu. Beronen prakak bere, baiña, neurtu-bearra dabe-ta, beste egunen baten izan bearko.

* * *

Gero Arte, izeko! Arteaga'ko Errotabarriren aldameneko Zizili joskillea, jostuna, joan yaku betirako (G. B.) Makifatxo bat errikidentsat amaika gona magaltsu ta praka barri egin izan zituau.

Azken arnasa ta begiak Bilbo'n itxi zituau, eta soña Derio'n lurperatu. Illeta-elaizkizunetan, azken agurra egiten, arratiar asko izan giñan. Otoi bada, arteagar eta enparauek, Zizili jostuna zanaren alde.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Aurtengo neguaren ateak, azken joandakoenak baino goizago erigi-zabaldu dira, eta bilin-balanka noraezean dabiltzan odei baltzak, katu ta txakur bihurturik, zaparradaka datorkiguz trunoi-tximistartean.

Joan ziran, surtzuloak iparrerantz zabaldu ta biriak janaritatea; ego-aize kiskalari igeska egiteak eta abaroan egoteak; baita Upo'ko artzain jakitsuaren igarle izatea.

Gau baltzak eta egun gorriak doguz aurrean. Otza ta gosea buztarripe bateko egiñik agertu dira, ta goscz-otzcz kikildurik eta negar murrinka bizi diranen aldezko eskeak egiten bere asi dira.

Nongo oxinean ito izan dira, edo zeintzuen sakelotan moltsotu ta metatu urteetako aurrerapenen ondasun eta kukurruku egiteak? Ludiak ludi izaten iraugo dauan arte ta gizonak gizonkerietan jarraitu, beti ta beti izango dira gosca ta asca, zapaldua ta zapaltzaillea, lotua ta azkatua; negarrak, barrak eta guda odoltsuak... naizta urtean zazpi alditan izan Gabonak eta Belen'en jaiotzak.

ITAUN ERANTZUNAK

—Gazte, aldizkari bi orriktatik zein dok, iretzat, atseginiagoa ta ulerkorragoa?

—Bieri joten izan dautseedaz ekitaldiak, eta, ba-dakizu ba... guk egiten dogun euskera lotsagarria gaztelerazko itzaz gurutzatua ta josia dalako, eta beste au erdel-itzezko zaparradakaz egiña dalako, obeto ulertuten izan neban, baiña aspalditxu dala oso nasetsu dator eta ezin ulertu dot.

—Eta beste onetzaz zer diñauzta ba?

—Naizta neure eretxi apalen jabea izan, ez naz iflor epaiketak egiteko.

—Azkatu, bada, eretxiok!

—Euskera gozoagan, osoagoan eta mamsuagoan agertuten da, eta nire begiak berarentzat dira.

—Eskerrik asko; jarrai bidc orri.

OILLAGOR ETA ODOLOSTE

Emen izan doguz maiaren ganean, zabal eta arro jarririk, Euba'n eratsitako oillagorak eta txori-odolezko odolosteak.

Zaran bete esker, Teo.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ARANTZATZU.—Lurrez txiki, biztanle-
lez urri; **ARANTZAK** baiña eztena zo-
rrotz eta beti urduri. Erri onen kondairan
lenengo antzerkia il ontako 8'garren
gauan.

Antzokitik at, kanpoan izotz leitua
aginduten asi zanean, leporaiño betea
izan zan barru barrena txalo-otsez be-
rotzen ari izan zan.

Arnasa barria ta Erria'ren zustraiak
blotzaren sakonean errotuta daukazan
gaztedi arduratsusak «Oartzunak» abes-
taldeak lagundurik, gabon-antzerkirik
polteneitakoa eskeindu euskun, orain
berreun eta berrogetamar urte aramaio-
tarren batek idatzitakoa.

Agur, bada, **ARANTZAK** eta **OIAR-
TZUNAK**. Jarrai txalo-ots sutsuak en-
tzuten deia izan dozuen toki guztietan.

* * *

Onton'go Barrenetxea'tar Jose, lur ne-
netsu ta latz onetako kezka-naigabeak
bizirik garenon bizkar itzi ondoren, eta
Jauna'ren deiare erantzun baiezkorra
emonik, «gero arte», agur egin dausku
(G. B.)

Adizkide baketsuaren ama minduak,
eta anai-arreba atsekabetuak, otoietan
lagun gaitue.

* * *

Erriko-Etxean bizi diran Manolo-Be-
goña senar-emazteak negu-lorea izan
dabe.

Izenez (Iñaki) euskaldun egin dozuen
semetxoa izatez be euskaldun izan da-
din, alegindu zaiteze!

* * *

Lurre ta Zornontza bitartean negarra
besterik ez da izan joan-barrak izan di-
ran egunetan. Ogeitalau urteko neskatil-
laren odolez gorritua izan da lurre'ko
bidegurutz bildurgarria. Non dira erri-
agintariak berebildunei astitsuago ibili-
arazoteko? ala il-metak jaso ta osotu
bear ete doguz negarrezko arazo okerrak
zuzentzeko?

* * *

Julian orozkorria ta Aniz mungiarra
(orain plentziarra) biak dira euskaldunak
eta biak dodaz ezagun-ezagunak. Ba-dira,
baiza euskeraren arnasa sakontzen ardu-
ratu ez diranak. Eta Bilbo'ko zubi baten
ganean norbait euskerazko zerbaik ira-
kurtzen eutsoelarik, arritu egin ziran eus-
kera idatziaren txukuntasuna entzun eta
ikusirik. Ba-dakizue ba, adizkideok, ba-
dirala uler-errezcan egiñak diran ira-
kurgai errezak. Arpidetu zaiteze.

Irakurle guztiei **ZORIONIK** gartsue-
nak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Zeanuritarren barri-emõille zolia, Gorbetarra, Iurre'ko Garbe'n izan da, ta biotza oiñetaraiño jatsunik Urkitze'ra igon. Oraindiño osotu ez dan auzotigiko lenen etxeak diru-ametsoz jaso ziran, eta bein-goz eta aguro atzerritarrez bete.

Kanpotarren etorte ugariakin pozturik eta diruaganako txibizkeriak erazota, besteen batzuk bere, elxegintza amorratuan asi ziran, lendik lodi ta indartsuak ziran sakelak gizenago egiteko. Eta errikoentzat baiño asko geiago jaso zivalarik, arrotzak jabetu ziran auzotegiakin. Etxekoen diru-egarria, biziera obeatzen billa etorri diranak eta euskaldunon muskal-izaterik eza izan dira Gorbetarra'ri biotza oiñetara jatsi-arazi ta erdera-bidean Garbe jarri dauskuenak. Gora, ba, biotzak, ez gaitezgan okildu, ta ekin Erriaren onerako izango dan arloari, saillari.

ARANTZATZU.—Paitarretan bustiriko ogi-kuskurrakin indarbarritu ondoren, osasun sendoa ta adinez gazte izan dan bizidunaren odolagaz, sukaldako atea, lau ormak eta sapaian dindiliz egoten dan argiraiño guztia gorritu izan dau, Zeaunuritik etorrita, Irurieta'n bigi dan morroskoak.

Ukondoraiño eskuak odoletan eukazan gizona, emaitzari laguntzen asi zan. Alangoen batean, nekatu ta asperturik, erdi asarraturik eta besoak luze guztian zabaldurik, inguru guztian ezan txipristiña besterik izan.

Etzaitz larritu arratiar irakurle. Lentxoago ilchen txarriaren odola izan zan eta odolosteak egiten on ziran une arstan. On egin begie, odolki ta txarrikiak, Irurieta'ko txarri-etzaitetan izan diranai, eta kalterik ez, izan ez garenoi.

EUBA'TIK.—Urte barriak, biziera ta bizitarrim barriak eskatzen dauz-eta, al daunak al dagi, ta Bernagoiti'ko Maritxu'k eta Etxebarri'ko Iñaki'k, onxe bera egin dauskue. Amaren antzeko zoli-bizkoria dirudin alabatxo pospolinkia izan dabe. Ugutzizena, Miren Amaia.

Zorion guraso barriai, ta Bernagoiti'n amaika lastan txeratsu ta Etxebarri'ko ama apatzaren amaika mosu-igurtzi gozo izango dauan aurrari, unelxuari, osasun on!

LANDAJUEULA'TAR A.

Arratia

NORAIÑO.—Bizkarguenaga'tar A. eta Ibarra'tar Txomin —dimatarra ta artcagatarra— barriketaldi astitsurik izaten dabek bakoitzean, puzka purrustaka banatzen dira txakur eta katu egiñik; eta bataren begiak eta bestearen belarriak dindilizka ikusi baiño len, alegindu gaitezak, arratiar guztiok, bakeari argi egiten.

Oraingo dimatarrik asko, Zamakola'ren lukikeriakaz itsuturik-edo, «zamakolista» lez agertzen dira, ta ez arratiar.

Jaiotzez ugelaxo-errikoa (Zeberio) dan Txomin'ek bere, auxe bera esaten dautso aurrean izaten dabek eztabaidalari garratzari: «Zu etzara arratiarra, zu zamakolista zara».

Bizkarguenaga'k ostera, sudurraren ganean erabilten dituan txirringil-burpilleri dantzian eragiñik, eta galdu barik besoz eta agoz itz-egiñik, Arratia nondik noraiño dan azaltzen aleginduten da, Dima bere mugarteko egiñik.

Eta orain, bakearen egarriz, emen izango gara itaun-galdera bi onein erantzun zain.

Ba-da ala ez da Dima Arratia? Zazpi errik ala bederatzik osotuten izan ete-dabe Arratia, oraintzu egiñak izan diran ebaketa-konponketak baiño len?

AGUR.—Izena baizen izate labur-motsa izango ebala uste ebenentzat musturreko ederreña aldizkari errizale onek.

Illero agertzen asi zana amabosteroko egin zan. Ibar-zelaietan nekezko txiki-txaka ibiltzari ekin ondoren, ergoientarren etxeetan arrerarik onena izan eban, eta gaur egun... itxasmutil bere ba-da.

«ARGA» itxasontzi aundian bigarren buru dan Intxausti Azarloza jaunaren ezagun eta adizkide bere egin dalarik, amabostero egiten dau joan-etorria Kanarias ugarteetatik; zornontzar euskaldun zintzoari, itxas-azal dantzariaren gaiflean gau ta egun lagundurik.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Urtarrillaren bian eta otsaillaren seian, igandez, bestik gora ta goiyik beera Arratia zearkatu bearrean nintzalarik, iru erritan izan nintzan.

Zeanuri'n.—Gorbea ta inguruak zuri-zuri, «Gorbeatarra»ren hosteko beroa, euskeraren onerako isitako artega ta urduri.

Arteaga'n.—Euskerea aitzaki-bidetzat darabilen auntz-bizardun makurrak ez dabe izan zereginik, oraindiñokoa beintzat, emengo gaztedian. Gazte aurrelariak Erriagaz bat datoz gizaldietako gure oitura zaarrai jarraituz.

Amabietan izan gendun meza aretan pozik izan giñan bertaratu giñan auzo-errietakoak; abeshatzeko, Jauna artzen eta mezako zeregin-laguntzaille, gaztedi sendoa ikusi al-izan gendualako. Besapeetan ez dabe azkurarik, gurasoen LURRA ez dabe nai saltzerik, Erriaren euskera gura dabe. Aurrera bada, eusko gaztedi, eta zuri, Bernaola'tar Bego, AGUR zale guztion «ongi-etorririk» beroena.

Arteagatarrak ba-dabe, zoritxarrez, edesti edo istori baltza bere; kristau-erri osoarentzat lotzagarrinetarikoa. Eumen bat gizon-andrazkok osaturiko Agatezale abeshatz ospetsuak, aurten ere ez dau lortu erriko enparantzean abestuteko baimenik, eta eleizpean abestu eban, lapur antzeko eskea erdi ixillean bete, ta... anka egin bear aguro. Beraz, buruz atzeratuak diran umeen gurasoak eta ume gaixoak ez, dabe larritasunean izan bearrik gure errien batzuetan buru diranakaz zorretan diralakotan.

Arantzatzuti'k.—Bide labanean dabilzan gazteekin izalekotan, goizean goiz izan nintzan; alperzarrok baiña, gabeen errondan, eta goizean logura... Gazte txiki gaztetxuak ikusi nituan, oneik baiña txitxiburruntzi edo basokoipetsua zala-ta, arrautz, urdai ta egunerako urdail-ornikiak bizkarreraturik Argiñao'rako bidean gora jarri ziran.

Eriotzak eta Jaiotzak.—Joaterik inork nai izan ez arren, guztiok joan bear-eta, epe laburrean iru eriotz izan doguz eusko-sendian.

Zeanuri'n, Iturbe'tar L.; Zeberio'n, Etxebarria'tar F.; Erramon Arantzatzu zalearen aititea; Arteaga'n, osaba Alpontso.

Goyan Begoz il diranak. Eta ongi-etorria Asier izenez kristau egiña izan dan Pili ta Xabier'en lenen semeari. Zorionik biozkerrenak guraso eta aitita-amamari (Paulatxo ta Manutxo'ri).

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Mendiak edurrez, sakonetan ura ta euria, txitxiburduntzi ta koipetsuetarako aro egokia. Txarririk loditu ta gizendu ez dogunak baiña, ez txitxirik ez burduntzirik eta koipetsu berorik bere ez.

Eta zerbait egiñez igande-jala emoteko emen izan naz etxeko epelean irakurgaiak irakurriz, zeozer ikasiz, «batasuna» ren landa pitxitxuan doguzan mueta guztietako negu-maillukiak —elduko ez diranak— batu ta pillotuten. Emen doguz bada, irakurle, bateratu eziñik, alkarikus eta bizi-eziñak jota agertuten diran itzik asko:

«Jutzizia ta gutizia.—Zen eta zan.—Entzegu, ensayo ta proba.—Klaritatea ta argia.—Fin, azken eta terminala.—Suzedio zan eta jazo zan.—Batean eta batetan. Aproposa ta egokia.—Astapena, hasera ta hasiera.—Memento ta momento.—Hori ta ori.—Honek eta onek.—Baina ta baiña.—Sobera ta sobra.—Organizatu ta muntatu.—Bilatu ta billatu.—Bulego ta opiziña.—Deputatu ta diputadu.—Herria ta erria.—Mogimendu ta mobimendu.—Gerla ta gerra... abar eta abar».

Eta orain, itz bi ta geiagogaz egiñak diran zatiak bere emen doguzan ezkerro, aspirinak iruntsi ta jo aurrera:

«Alfabetatze kanpaina muntatuaren problemarik importanteenak prestigioa eta ponentzia propiaok dire.—Liburu alegerearen autore sonatuak.—Kualifikazio estimatua.—Fineziaren fase finkatuan manu egin eta maneatu.—Mamera modernoaren faktoreak, propozioak eta fortuna positiboak».

Eta nik orain, «Galiziano»ren eta bere adizkide kutunen eskubideak nireganatuz eta euskal irakurleei parka eskatuz, otoi egin bear izartegira begiak jasoz: Todopoderoso Omnipotenteak eta Birgina Madrea'k libro ta salbo begie, eusko sabiduriaren hijo predilekto agertzen diranek internazionalituriko euskera errukagarri HAU.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ODOL.—Iturri izango dan odol-emoille alkattea eratuten diardue arratiarrak. Deia egiñik dago, non eta nori izena emon, eta ziurtzat jotzen dogu kukurrukua, erantzun baikorraren oiartzuna entzuna ta erantzuna izango dala gure mendi-barren eta zelaletan.

Gaur egun, guztiok dakigu «A-B-O-H-r» ta abar izendun odol muetak dirala gizone-tan, baita «emakumeetan» bere. Ez aitzu baiña, gogoan izatekoa da-ta, «ka ta ka» dunak bere ba-garala. Eta ondo izango litzake, gari ta olo garbiketan, gure zaarrak erabilten eben galbaia erabilliz «h» danak eta «k» bikoitzdunak garaiz banandutea.

Aurrera bada! odol on ugaria ta gaixorik diranen kupi ta errukia dozuena. Iñorenakin geurea baiño, geureakin iñorena nastatea, beti bere, ohea izango da-ta.

* * *

Orain bere, gazte jator, zintzoenetan zintzoenak, bi galdu doguz, betirako. Iñaki ta Josu izan dira eriotzaren erpe makurrak lapurtu dauskuezanak. G. B.

Ildako gazteen mezetan Karmelo'n bere izan nintzan, eta eleiz-aurreko zelaitxoan, Iurre'ko Bixente ta Lontxo Urkijo anaiakaz aurkitu. Bixente, nire adizkide on-ona, itz-lapiko (eltzea) ugaria beti lez, eta ekiñaren ekiñean euskera-zotaskan sartu giñan.

—Euskerazkorik ezer irakurten dok?

—Zezer bai.

—Zein aldizkari?

—Ba... Prailleena-edo... olako zerbait.

—H'duna dok, ala h'rik gabea?

—Ba... mutil..., orixe be... etxakiat, bakik?

—Ez. Ik eztakik, baiña nik bai. Ik tutik be ez dok irakurten, abar eta abar...

Urtearen buruan zenbat diru ta ordu emoten dautzaguz erdereari? Euskereari diru gitxi ta begiak itxi.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lentxoago batean deika ta erantzun-
eske agertu nintzan Dima'ri ta Arratia'ri
buruz, eta ona emen non doguzan bos-
teren erantzunak Bizkarguenaga'ri eze-
tzka.

Bustintza'k; Artaun'dik; J. M.^a Zua-
zua'k, erbarrendik; Txomin Errota'k
(Etayo'k), Mugatza'tik; G. Alda'k, Iku-
turri'k (guztiok dimatarrak) eta Joanpe'k
Arteaga'tik, ezetz diñoe. Olan izanik,
bada, eta erantzun baietzkorik izango ez
dogun arte, Dima, Arratia ez dala esan
bearko. Beraz, Txomin'ek irabazi, Anto-
nio'k galdu, zati baterako bakea lagunar-
teratu dogu.

* * *

Txorri-erritarren batek txarria ilte-
rakoan Bilbo'ra begira jartzen ei-dau,
odolozte ta saieskiak errezago Bilbo'ra-
turik lankideekaz zilbor betekada egiteko.

Garizumako aragi-izte egun batez, an
non etorran Pazientzi adizkide on-ona
bere biotza bazen andia ta zabala zan
besapekada txarrikiagaz. Eta ordubiak
aldera, aragi-iztea bere bai-zala-ta, ezta-
baidan ekin ondoren, sekula sekulorungo
tripakada egin eben.

Zauka-maukan eskua izan ebenak:
Aratza'tik berreun kiloko gizontoa;
Arteaga'tik, askozaz mirrixagoa ez dan
bat; Txori-erritik, odolozteen jabea, ta
andaluzitarren bat edo beste. Gosez
ba'ziran, bete bere bete egin ziran.
Ondorengo iru egunetan baiña, ez-ziran
guztiak ondo ibilli; batzuek arnasaz bete
eziñik goitik, besteak putz-ustu eziñik
beetik.

* * *

Epaillaren 25'gna. egun zoragarria,
liluragarria. Euskeraren bizkar-azurra,
pautzik gabeko gari-soloa Intxorta «go-
mutagarriaren» orpoan, Elgeta'n izan
genduana. An bai ba-zala biotzezko
amaitasuna, benetako alkartasuna ta egi-
azko batasuna. Antxe bai izan zala
Arantzazu'ko batzar «pamatua» txokora-
turik itxi dauan egun gogoangarria,
euskal-jakitura eta euskeraren EUSKAL-
TZAINDIA.

Txalogarriak bertan izan ziran areitz
ezkurtsuak eta ezkur zaarretatik jaiotako
landara barri errotsuak.

Eundakak anai-arreba, Gipuzkoa'tik
eta Bizka'i'tik, euskereak euskaldun iza-
ten iraun dagin, indarbarritzeko, ustel-
keriari esia jartzeko goi aretan besar-
katuak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Berrogeikaroa, garizumea joan yakun. Jaungoikoa'kin eta lagun urkoagaz bake egiñik —zorretan izan ba'gara— artu-emo-nak zuzenagotu, sendoagotu ta egokituteko berebiziko aldia.

Gurutzeratua ta illa izan zana, biztu zan; lotuak eta menperatuak azkatzera etorria, jagi zan..., jorraillaren bian, egun gogoan-garrían.

Erri txiki indargeak baiña leen bazen go-gor gogorkerizko edez loturik, cuskaldunaren biotza barriz... korapilloturik, mataza egiñik, azkatu ezifik.

Jorraillaren 2'gnean zan, Euskalerra txi-kia, baiña osotua ta alkartua zirudian eleiz-atadian, errikide batekin aurrez egin eta agurtu ondoren, biotzean daukan zuldarra osatu ta korapilloa azkatu nairik nigana jo eban eguna.

Eta tamal-oxinean ia-ia itota irudian gi-zon-gizona, era onetan asi zan: «Etxekoak etxean eta anaiak anaien artean sorturiko burruka zatitzaillearen barri sakon-sakonik etxakiat, bai orratio, bide barriak urratu ta egin guran, bakoitza beraren opillagaz ardu-ratuten ari dala. Bilbo'ko Euskal-etxe bate-tik laguntza-deia izan yoat, eta emen naukak zer egin ez dakitala. Zer deritxak?»

Emen dozu, ba, irakurle, Arantzazu'n izan zan «batasun-batzarraren» oste ta on-doren garratza, zitala, aizkora zorrotza; bi-zirik gaukazan bizitzaren biurgunc makurra.

Nerekin izan zana, bat baiño ez da, baiña Erria'ren zoririk txarrenerako asko ta asko dira noraezari emonak diranak.

Nortzuk gara errudun?

Erriagaz bat ez datozenak, «aizkolariak».

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ETXE-KALTE

Lentxoago batean, oraindik oraintzu, Iturbe'tar Marciano errikide ta adizkide ona, nire lantokian izan zan eta, arri ez nintzan biurtu eguraldi epel samarra izan zalako ziur asko. Eta lanari emonak gengoazala, ona emen non datorkun mutil koskor mazal polita, gure arteko egin izan zana.

—Nongotarra az mutiko? Mutikoak baiña begiak zabaldu ta ezpanak estutu, ta bigarren itaun-galdereari era onetan erantzun: «Pero qué me dice; que yo no sé vascuence!»

Alaxe zan izan be; tutik be ezekian. Eta aitarenka ekin ondoren mutillaren aitarekin asi nintzan.

—Nik ezagutzen ez dodan Unanue deritzona iaukaguk errian. Nor dok bera?

—Enkartaziñoetatik gure errira ogia irabaztera etorri, baserriar neskatilla-kin ezkondu ta oso-osorik bertako egin dan bat.

—Euskerea orren sorterrian arrotza dok, eta Unanue, ala onen semeren bat? AGUR'en arpideduna dok. Zelan eta nolan izan daltekek ori?

—Arpidetzari buruz ezer etxakiat, baiña, aldi batez erdeldun izan zana, gaur egun, euskaldun osoa dok.

Emen doguz ba, gizon biren biotz, gogo ta arazo ezbaridiak, atzez-aurrera-koak. Jaun eta jabe bakarra erderean dan erritik etorri izan zanak euskerea ikasi, Iurre euskaldun errian, eta bertako semearen semeak, gurasoen erruz, txo-koatu.

Ik egin dok egitekoa, Maren! Gure Erriarentzat izan bearreko semea auzoari saldu.

ARROTZ-ZALE

Batasuna bearrezkoa zala-ta, h'ren bat edo beste or-emenka ipintzea apalik eta barerik eskatu euskuen. Gaur egun ostera, kaiku kankaillu begi-gaixokiñari toki guztiak eskeindu ondoren, eta non jarri iñork ikasi baiño len, gangardun izkien deia be egin dauskuc. Au da: euskera mantxatuan esaten dan «detra azentuatuak».

Geroagoz, «c» ta «v» ongarri dirala siñistu-arazoten be aleginduko dira, eta azkenex «double w» ta «double l» zarra. Parka irakurle.

Oartu, konturatu gaitean aramu-sareetako eltzoak izaterik nai ez ba'dogu.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

URIASTE - URIA'TAR JULENTXU'
RI.—Ene lobatxo: Emen nozu bizkar-
 azurra otzikaraz, biotza oñazez, oñeta-
 tik bururaino atsekabez.

Lenen aldiz Jaunartzea egin dozun egunean, oraindik zuriz jantzirik izango zaranean, lantxo au biribilduten diardudanean, Euskalerrria baltzitu dozu Jaunartzeakin batean.

Zuretzat egun gogoangarria dan eguna ospatuteko bialdu dauskuzuzan opiltxo gozo-gozoak, ondoren garratzekoak niretzat. Zelan eta nolau ausartu izan zara erderaz egiña izan dan jaunartzeoroigarria maite-maite zaitun osaba oni bialtzen, izeka ta adar-jotea egiten; auzokoen izkuntza indartsuaren aurrean txapela kendu, makurtu ta laztanak egiten... geurea oinperatuten?

Esan aita-amari, arren, AGUR au jasoko dozunean, don Marzelo'ren garai edo aldi artako zigor-eraztunik gaur egun ez dogularik, ondo ta obe izango litzakigula euskalkeriaren tokia euskaltasunari eskeindu ta emotea. Biderik asko ta zabalak doguz Erriaren aldeko iraultza bakezkoak egiteko, baiña lo-bedarren saldeakin aziak eta eziak dirudigu.

Mingaiña txillin-txalari, biotza lozorro sakonencan, egiteko egiteetan labur eta motz... euskal izatea katu-korotz.

SAN ANTON ZALE.—Diran Bilbo'ko euskaldunentzat au. Amabietako euskalmezatatik urteeran, begiratu egizue, arretaz, ezker-eskumara, beeko ate inguruetan, antxe izaten da, ba, iganderik geienetan, euskerearen eta euskerazaleen etsai-arerio amorraturik amorratuena. Beti bakarti ta igeskor, basa-pizti ezi bageen antzera.

Ordu batetan izaten dan erdel-meza-
 ren zain egoten da, ta lentxoago batean,
 gogorik onenez agurtu ondoren, erantzun au entzun bearrean izan nintzan,
 erderaz: «Emen alkartu bearrean, ez daukazuez zeuoen parrokiak, eleiza au kiratsez betetzen diarduzue-ta?»

Dima'ko semea dogu izenik barik aitatu dodan morroia.

LANDAJUELA'TAR A.

Euba

ERKOLES

Negu-usaiñezko egunak joan besterik ez eta, udaldia storririk zala-ta, eubatarrak eta auzotegirik askok Erkoles'go euskal-arnasara jo eben orrillaren 21'ganean, aspaldi ontan izan dogun egunik-eta ederrenean.

Ikustekoak izan ziran Arriaundia'ko ASKORPE ta Bernagoiti'ko ARIN-ARIN —neskato, mutiko— dantza taldeak, zuri-gorritz jantzita landa orlegiaren ganean, makilla ta espata eskuan, abenda zaarraren areitza kimu barrietan.

Egun aro ederraren ederrak eraginda, toki bertara egin genduan arratsaldean bere, dantza azkantuan Bizkaï'an doguzan bikoterik onenak ikustera. Irabazleak onetik izan ziran:

1.—Garramiola-Beitia; 2.—Basagoiti-Mugarra; 3.—Osorio-Mendiolea; 4.—Arteagagoitia lengusuak. Sinko deritxon bat be ba-zan dantzan egiteko, ordua eldu zanean baiña, paparrean bizarrik ezagaitik eta prakak busti bildurrez... pot eta porrot.

Gursak diran jai jatorrai laguntza eskeiñi ta eskuzabal diranak gogoan izatekoak doguz, eta nora jo jakin bear dogu dirua eralgi bearra dogunean.

Emen doguz, ba, garai-ikur eta beste saririk askogaz laguntzaille izan diranak egun onetan: Zeruetan entzute qundidun eta inpernuetan ezaguna dan «BAR MAÑOSO»; «Super Mercado SARA-MENDI»; «Justo BILBAO»; «Anton ZABALA» ta «EUBA'TAR GAZTEDIA».

Gogoan izatekoa ta eredugarria da, baita, Erkoles'en eta Euba'n izaten diran jaietan, aurkezlari ta buru bezela, jo-ta-ke lanean ari izaten diran Lourdes ta J. L. Izagirre bikotea; esatekoak, izatekoak eta argibide guztiak Aitor'en izkuntzan azaltzen dakie-ta.

Euba'n eta ingurumarietan barririk asko izaten, da batez bere eiztari panparroia buruz. Aurre-rantz, ba, J. L. Izagirre izango bertako barri-emoille. Eta eiztariak, egizale izaterik nai ba'dau, izen onaren jabe izaterik gura ba'dau ...egiaren itxurazgo gezurtxo ondo biribilduak, siñistu erakoak esaten ikasi dagiala.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Euskal-aldizkarien arpidedunik askoren etxeak, irakurgaien illerriak dirudiela ukatu-eziña dogu.

Ateetara datorrenari «Jaungoikoa lagun» ez esaterarren arpidetuten diranak ugari samar dira, edo, dirala diñoe beintzat. Aldiz aldizkoa baiña, poz bage ta otz-otzik jasoten dabe ta, orrialdeak eguzkirik ikusi barik eta begientzat gaixokiña ba-litz bezela, arasa zaarrea metatu, sits eta pi-piaren janari biurtu... ordaindu bear danean bu-ruari atz-egin eta sudurra gazitu.

Azalduz dakardan arazo aulakorik ez dau izango euskal-sendiarentzat egiña dan AGUR onek, Zuazo Mari'ren etxean, an, Zeanuri'n, Manterola'tar Garibel jaun txalogarria, Urigoitia, Gorbeatarra ta beste zenbaiten jatorri ta bizitokian.

Irriz eta larriz, pozez eta gosez izaten da Zuazo Mari, astero, AGUR'en zain. Eta orrialderik geienak irakurri ta lanik gogokenak sakon ausnartu ondoren, pillatu ta metatu bearrean, lobeen tartean zabaldu. Eskerrak, ba, andratxo onen lan apalari ta asma sutsuari, AGUR'en senitar-teko egin yaku Ozerin Mari Anjeles gazte, zuur bizkorra bere.

Eta orain, zeugana nator M. A. Ozerin eskaritxo onekin: Zure izekoak biotz orretan erein dauan azi errikoiaeren txingar eta txinpartaz, berotu egizuz adizkide ta ezagunak; ekarri egiazko euskal-landara AGUR-zale ta erri-kutun diran gazte zintzoak, Eskerrik asko.

M. Tere Gereta, AGUR jaio zanetik berbera arpidetua, Bilbo'n izan dan Idazti Azokea begiz arakatuten ikusi izan dogu, Xabier'en eskutik, maite-maiterik, pozez beterik. Eta nik nire aldetik eskeindu neutsoen laguntza ta barruan erabilluen igande-ametsa ondo ta onurakor beteak izan zivalarik, Jaunari esker, guztiak pozez.

Bagilla'ren iruan eta lauan adimenez epelak diranen aldeko jaiak, iñon ez lakoak, Iurre'ko errian. Baiña, bertaratuterik ez neban izan, gipuzkoarrak, arabarrak, naparrak eta bizkaitarrak alkar-besarkatuteko eguna aldi berean izaten doguta. Beraz, luma zoliagoren batek azaldurik, irakurri al izateko zoria izan dagigula.

LANDAJUELA'TAR A.

Arrate-Arrati

Azi batetik erneak dirudien itz biok, alkar sende eta dira?

Bagillaren 4'gnean, eibartarren goi zoragarrian izan giñan, Arrate'n, eta giputz anai jatorrak esaten zuten bezela, giro berezia eta toki egokia izan genduzan.

Euskeraren ongarri-eguna ospatu izan zan: umeen arteko Euskera Txapelketa. Neskatil maratx eta gizonezkoak, pagadi-areiztian tanbolin eta txistuz Erri zintzoaren itxaropena diran umeai, guraso ta an izan giñan guztioi, kemena ta poza emoten alegindun ziran. Ba-zan, baita, ikustekoa ta pozgarria, bazkari anaikor batek bide egiñik, 36'gneko kintoak goi artan alkaturik, alkar besarka ta agurka ikustea.

Aitatu izan dodan lez, eundaka lagun izan ziran eta, jaiari amaibukaera egitera, etorri oneko eta iturri garbiko bertsolari gazteak artekotu ziran: Narbaitza ta Uranga. Eta entzule ziranak igarotako egun baltz-latzai ta ordu luze-illunai ikutu zorrotzak egin ondoren, txalo-jote bero-be-roen jabe egin ziran.

“ ” “

Lan ziriborro au argitaratuko danerako, Arrati ta inguruetakoa jairik asko urtuak eta aiztuak izango dira. Egiten ari nazen egun ontan baiña, Dima'ko agintari ta gaztedi, San Pedro jaiari buruz sokatiran diardue.

Sanjoanak eta Sanantoliñak, Oba auzotegiko jaiak, baiña zeinsek jakin zeintzuk diran nagusienak? Sanjoanetan, Sanantoliñetan dirala esalendauskue. Sanantoliñetan ostera, Sanjoan dala nagusia. An doguz baiña Patxi ta Isidra, eta Oba'tik iñor ez da biurtuko saietsartea ikoldurik.

Arteaga'ko gaztelu-eleizabeitiarrak bere, luki edo azeri bardin samarrak, obatarren antz eta irudiko dira. Iru jai daben errian, ta iñok ez daki —ez dabe jakin nai izaten— zeinena zein dan.

Emen doguz, ba, Oba ta Arteaga, Jesus'en Biotza, Andramari, Sanmiguel, Sanantolin eta Sanjoan. Zeingana joan?

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Gaur egun etxean dogun arazo zitalak aspaldiz kezkatuta naukalarik, sator-illunzale baltzaren bizilekua, batzartokia ta lurpeko bideak noraiño egiñak ditun ikasten ari izan naiz; baita alako lurrelisti edo topografi antzekoen bat be marraztu izan dot, naizta omen ezin agertu, arratiar iñozoak jakin dagien.

Somosierra bera be azpi-azpitik zulatu ondoren eta Madril'erañoko azpi-ibiltea egin, azaleratu an egiten dala dirudi. baita arnas-barritu be.

Andik Ipar-Euskalerra'ra txutxu-mutxuak egitera eta, azkenez, Bidasoz emendiko landara, «batusunaren eta erderantoaren zina sakratuaren pean» artaldea zurikeriz otso gosearen ortz zorrotzetara eroatera, eramatera.

Ba-dogu, ba, zer ikasirik eta zer jasorik, eguneroko txirrinean ibilterik nai ba'dogu bai beintzat, Goiz-Argi'tik, Karmel'dik eta Agur'etik.

Itxartu ta esnatu adi, ba, euskotar epel ori. Eta dei dagiat, baita iri be, egunaren argitara, arpegia agertzeko bildurrak eraginda bizkarra emonik igeska abillen orri.

* * *

Zeanuri'tik Urkiola'ra.—Senar emazte ezkonbarriak Andoni deunagana doaz basoz-basoz; garo, bedar eta iñontzarteetatik. Emaztea doa aurretik gona luze magaltsuei beak ez bustiteko, gora egiñik.

Aurre uruti batean, bidearen ertzean, ezagunen batzuk gosalduten ziarduela ikustean, senarrak emazteari: «Jatsi egizuz gonok, arren, belaunburuak ikusiko dautsuezan baiño len».

—Zer, ba, zikin dodaz ala...?

—Zikifnik, ez, baiña... eneuka iñon entzun gura zure etxaguntza zabal-ederragaitik zugaz ezkondu nintzanik.

* * *

Bilbo'tik Ataun'era ta Ordizia'ra, Apalategi adizkide miñari: Arrate'n aitaturiko ataundarra, Alciberri baserriko semea dek, Ezkizabel'tar Juan. Ire etxe ortan, TXIN-DOKI ospetsuan, iñoiz txurrutak egindakoa.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Amets dagit, amets, mutil koskorra izan nintzaneko aroari gogoan leku eginik.

Olabarri ta enparantza zaar ingurueta-koentzat txitxi-burduntzi tokia izaten zan Motxogan'go pago bakarraren kerizpean nago bakar-bakarrik, ezarririk... ametsari emonik.

...Eta, ene! Leonardo dator Dima'tik, zaldi bik aptx-otska dakarden burdian. Solaguren'go bidean gora doa Bernabe Txiki; Patxi Plaza barriz etxeinguruan agiri da betiko beraren burrus txiki ta guzti.

Errekarako bidean doa Imilio Zentalea arrainetan, zuri-gorri diran erbitxakur bi daroaz orpoan-orpoan, eta Joaniko'k Erbi-solo'n daragio bedar ebaketa-lanean. Aulkian ezarrita, erdi loan, Pedro Abarketeru; Ambros Inderra'k itxartu egin dau baiña, alboka ta soinu.

Olabarri'ko orma arteetan Gondra'k matxayenak inausiten ditun bitartean, Janpulo'ren etxeak txondorra dirudi, dana dago, ba, ketan. Eta titirri-tatarra etxerantz etorritz datorren Gereta'ko mutua, Angelatxu'ren zubi-orman ezarri da Satxiturri'ri begira.

Orain, ostera Landakoetxe'tik ibilliz dator, tenerako itxuran, gizonezko mosu-gorri biri-bilkotea: Eta larunbata izanik nork esan Anton Porru ez danik!

Guda zitala ezkeroz Iurre'n jayoak izan diranen artean nork daki Motxogan'go pagoaren barririk, Angelatxu'ren zubia ta Satsiturri non izan ziranik?

Emen aitaturiko gizasemeak, orain ezker, zeructan izango dira gure zain, eta ezer garbirik eta argirik nai dauanak itaundu begio aititeak diranai.

BEGOÑA'RA

Begoñatarren baserritar Alkarte Etxean egunero alkartu eta astero-astero arretaz cuskaldun zintzoen aldizkari au irakurten daben J. Agirre bertsozaleari, ezkontza-bildurrez dardarka bizi dan A. Udaberano'ri, Josetxu Artxanda bake utsari, Inazio indartsuari, Dionixio medizale amorratuari, t. a., agur ta erdi laster arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Urte onen zazpigarren illabeteko 19'gn egunean bizi naz, bizitz-ordulariaren besoak aspaldi antxiñara 36 urte atzeratu izan dodaz. Iruña ta Zaragoza dodaz gogoan, Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko ainbat toki biotzean.

Egun artan, 19'an, gudaritza egiten nintzan-eta, otoz-otoka agindua betetuz Zaragoza'raiñoko bidea egin eta, gaberdi-goizalderantz barrien-barriz Iruña'ratu.

Illaren 24'an Bidasoa'ko Endarlatza zubia begipean, izkilluak danba-danbaka egun guztian. Sua ta kea besterik ezan izan. Illunabarrean Bera Bidaso'koa deritxon errira atzeratu giñan Santiago eguna emotera. Eta Bera'tik, nik dakit ba, nondik nora ibillian ibilliz Lesaka, Donestebe, Goizueta bere bai uste, Oiartzun'era eldu giñan.

Izentatu ezin dodazan baserri-etxe eder bitan gaba ta egunak igaroa naz. Batean, bizi ziran; bestea, utsik. Utsituak idaztegi polita eukan, lanik geienak karlista zaarren aldi ta kondaira euken mamiturik.

Kanpai-dorrean be izan nintzan Errenderi aldean zainduz. Azkeneko egunean «Vale por un par de zapatos» orritxo baten idatzi, oiñetako barriak jantzi, eta Pikoketa'raiño igonik, andrazkoak eta gizonezkoak ilda ta azken-arnasan bere bai ikusi. Erlaiz'en izan gendun aurrez-aurrezkarik gogorrena, ta iges egiteko egarririk leorrena eta, goizalde batean, Bidasoa zearkatuz eta; Endaia'n eta Baiona'n iru egun emon ondoren, neure lurraldera ta artaldera biurtu nintzan.

ZEANURI

Erri ontan dan agintari gorengo nagusiak egin eta izenbetu izan dauan orria irakurri dot. Erdera txukun gozoan egiñik dago, agindu zorrotz eta gogorrez beterik.

Txistua, albokea ta abar mututu egin dauz, auzotegietan ez da jai zarataturik izango, ezta ere jolas eta kirolik; Contamos contigo.

Gizonaren indar makalak eta arrokeririk andienak ezin ixildu ta geldi-arazo izadiaren izatea, eta Zeanuri'n be txistu, alboka ta abar mututuak izan diran arren, txoriak txorrotzio egingo dau, oillarrak kukurruku, txakurrak zainka ta ausi, astoak arrantza, len orain eta beti.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Beroaren beroz ito baiñik eta miña aterata, geiago ezinean, jakeak besapean ebezala ikusi izan doguz, lengo egun batez, Dobaran Sabin eta Zuazo P. Artaun'goa. Beraz, udaldiaren biotz-biotzean bizi gara, arrautzopil-aro egokiena oraingoxea, hide-ertzetan narru-zatiak itzi, ondartzetan azala baltzizkatu naiz mendirako egun aukeratuak oraingoxe onelik. Nirealako soin nagi-astunak, ostera, etxeko giroa malteago; epe astitsu ta txorlartetarako barriz, irakurgaiak dodaz lagunik kutunenak.

Irakurritarikoren artean don Felipe Jauntxo Saltsitas Aundigure'k, illak eta biziak astinduz egin izan dauan lanaren ikutu zerbatzuk ikusi izan dodaz eta, neure eretxia agertu-bearrez, eta nire ustez, idazkur zikiña «ENPLEGATU» dauala esan-bearra dot.

* * *

Beraren eretxi arroz gorengo maillan gorengo POETA danaren poesiak Haxeal esker, «elegantziarik elegantemenean» egiñak, mamiz uts eta putz.

Zikin-oxiñetan aurkitu ta jaso izan dodazan txorta bat edo beste nai dozuela «euskeranto Irternacionalitatu»? Emen dozuez, ba, baiña, gogoan izan gero! Jan zaarrean irakurtekoak dirala.

«Estudio diskutigarri bat presentatu izan da examinetara kritika manierismoa jotzen dula». «Fierki zedatutako frogantza frogatuan gatibatatus». «Literatura librea pasatzearen prozesu nonbratuan flakezazko kualitatea».

«Ez dakit eta ezin dot», alperkeriaren nita ta ama dira. Guztiok gara zerbait egiteko al.

Aspaldi aundirik ez dala, ALPRO deritxon itxasontzian mundurik mundu dabiltzan Koldo Goitia ta Yon lekeitiarrekaz alkar ezagutzea izan neban. Lekeitiar eusko seme zintzo onelik AGUR onen adizkide egin dira eta, itxas kresaltsuaren bizkarrean kulunka ta sabuka egin, gogotsu irakurri eta Alemani'ko Hamburgo'ra iritxi edo elduten diranean, an diran euskaldunei emoten dautsee. AGUR au, ba, itxastarra be ba da, errimifuez bizi diranen pozgarria eta Koldo ta Yon'en bide laguna.

Agur, ba, Koldo, agur, Yon; agur ira kurle, beste bat arte.

LANDAJUELA TAR A.

Arratia

ZUDURRA GAZITU.—Bi urteko zala Venezuela'ra joan zan, amazazpigarrena bertan betetu, sorterrira etorri... ta sudurra gazitu.

Gorbea'peko Karkabitxueta'ko basajaun Petralanda'tar Maren'en iloba ta Goinaga kitar-abeslari gazte jatorraren lengusiña dan Izaskun'i buruz nator.

Jaioterrira biurtzean bide-lagun izan zituan poz-ametsak aitita-amamaren besarteetan eta banaka batzuen inguruetan astu-bearrean izan zan, beste nor askorik (euskaldunik) aurkitu ez ebalako.

Biotzaren amets-begiz urrun-urrutietatik onantz begiratzuz ikusten izan eban Erria erdel senari emana aurkitu dau, pot eginbaiñik.

Ainbatzuen zozokeriz, zeinbatzuen zarkeriz eta aldi ontako AIZKOLARIEN marroz eta bidez arrotzaren kerizpe edo itzalpera eroanez daroagun erriatzaz (gutzaz), zer azalpen izango ete dau gure goizoillandatzak, barrien-barriz gurasokana biurtuko danean.

AURTENGO udaldi'an, ganorabako samarra dala-ta, kezkarik asko entzun izan dogu, gaztedia baiña zur eta bizkor gozogarriak kolkoratuten.

Baso ta oyanetan Adan eta Eva dirudiela. Ilargiak agintasunik ez daukan abarpeetan sasikeriak. Urbastarretan alkar itoten diarduen sugetzarrak ba'lira lez alkarri kiribilduta. «Progresaren progresazinoan» bizi gara.

USTELA TA ZIKIÑA.—Euskera «modernizatze kanpaina» begi onez ikusiko neuke «kanpainaleek» euskera odol-usuteko gogoz eta asmoz izkuntzaren izain edo usan (sanguijuela) biurtu ez ba'lira.

Emen eztenkada batzuk: «Enamora-tuen afektibitatean kausatua denuntzia. Maitale sensiblea akusazioz abusatua, rekursoaren pean sentimentalki defenditua, azken finean libratua. Autoritate familiaristaren magistradoan personalki pribatu kausaren inplikazio apasionatua. Poetiko personala finaren poesiatutako definitate sistematizatua».

Agur, beste bat arte.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

An-or-emengo barrien eta norbaiten billa lurre'n izan naz, nire sorterrian. Garbe aldean atzerriko pautza ugari, Elexalde'tik Plaza Zaarrera errikoa be ez gitxi, illargi nagia ez da agiri ta bideetako argiak epertargi.

Gorago aitatu izan dodan norbait a bear neban-eta, Olabarri'rako bidean ukuillu edo korta-lanetan ifiarduan gizonarengana jo neban eta nire gau-on eta agurrari, era onetan erantzun: «Aquí estoy gobernando dos vacas como dos templos, un novillo como una iglesia y dos cerdos como dos catedrales». Ondo ta eder dok eleizaz eta antzekoz ikuillua, kortea beterik eukitea, ta ez litzakik txarto ta gaizki izango, eure burua bere, catedral naiz templo izatera biurtutea.

Orain artekoa illaren bederatzian izan zan, eta 10'ean Zornotza'n izan nintzan. Amasei gizonaekoren euskerea entzun neban, Patxi Pitxon zeauritarra arteko zala, amalau berebil AGUR-zale ikusi, iru Anaitasuna'renak, eta ganetiko guztia eutz eta pautz, izatea ta nortasuna galduz eta ondatuz daroan erria.

Zornotza'tik Euba'ra. J. L. Izagirre'ri lepobero egiteko asmoz, baiña biriak aizebarritutera nonbaitera joana zalarik, Etxebarri'ko mai oparo ugarian aurkitu neban tokirik egokiena.

Baserri auxe bai egiz eta benetan aurrerapenaren txirrinean aurrena: 35 milla pesetako epertxakurra ateetan azke eta 30 millako beia askan lotuta.

Europa'n doguzan bolaririk oneneta-rikoak be aitatu izan genduzan, San Antonio'ko ta Boroa'ko panparrofiak, baita ingurumarietako bolarien ezitzailea be, Mugartza TXATUA. Artu eta estutu egik, ba, adizkide zar, AGUR onen bidez luzetuten doatan bosteko gartsua, ta bialdu onantz ondo biribilduriko guzurbolak, gogatsu irakurriko yoguzak-eta.

Orain Arantzazu'n nozue Busturi'ko ondartzetatik etor-barri diran iru llobakin.

—Osaba, an bai an. Izen bat bera bez erdeldunik: Itziar, Gorka, Iratxe, Itxaso, Olatz, a. t. a., guztiok izan gara izenezko euskaldunak.

—Ba, olan izan ba'da... itxastxoriak eurak be euskaldunak izango dira oarin ezkerok!

—An izan garenon ezpanetatik itz erditxo bat bera bere ez da izan euskarentzat.

Izenagaz arro... izateari marro. Ur kresaltsuak garbituko al dauz Madalen Busturi'koren itxasertz atsituak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ARRATPKO bideziorretan aurrea jo baiño len, ikusi ta aztertu zenbat euskal-itz bastertuak izan diran, erdereari **ONGI-ETORRI!** esateko. Aspaldiz txokoratu izan neban aldizkari betetik jaso izan dodaz-eta, erruki gaitazan Txanotxo-Gorri'ren amon, amamari jazorikoa jazo baiño len:

«Abustuaren 19an eguraldia sano freskatu da... (L biko errian). Espektadore sufrituak ezenarioan, kolorezko argiak, jesarleku guztiak okupaturik, frontoia jendez toperaiño eta bi metro alturako gizona guztia dominatzen. Ondo entrenaturiko neskek eta mutilek arropa barrietan ezenarioan seriotasuncz, esibionismo aiderik gabe mugitzeak komentzitu ginduezan. Kanta asko, boz utsez fintasuna eta lirismos. Gero, soldatu bat posible ez dan personalismo baten profeta, bekatu orijinalaren kausaz kantatu zuan: *Itxaropena posible bilakatzen da, maitasuna ez da absurdo gelditzen.*—Kanta pegagarriak publikoaren erreakzioa izan ziran».

ARTEAGA arakatzera noa orain, eta ementxe bai, edo iñongo iñon ez, bizigurea ta ilteko nairik-eza.

Gaixoen sendatzea auzo-erriko osagillearen esku dago. Il-zorian dagonak berak egin bear zuloa, edo bizi-izaten jarraitu bear, zuloginik ez daukeelako. Lenago iru apaiz, orain bat, auzo-errikoa. Erriko zabalduan, enparantzean edo plazan soñutoki polit-polita, baiña... gaztediak auzora anka. Agintari gorenkoa andrazkoa, baita erri-morro, aguazilla bera be, gonaduna.

Gizona beti izaten da begi-luze emakumeren bat inguramari izaten danean, emen jazoten dana oster, oso bestera da: emakume eder bi erria zuzentzen... eta gaztedia jaistan aldameneko errietara jolastuten. Korapillo gogorren bat dau erriak.

GUZTIENTZAT eskubide bardiñak agertuten ez dauzan eleizari begirakada bat egin eta Ugarte'raiño eldu besterik ez, amaren ondoan tomate batzean diardun neskati eder-eder batek, agurka besoa gora-goratu, ta diñost: «Idazlan sakonagoak, gogorragoak eta berdeagoak gura doguz!»

Ederto esan don, neska, esatekorik ezer izan ba'don; gogorrak eta berdeak eskatu eta tomaterik elduenak eta bigunenak altzoratu. Urrengo baten aituko gozan.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Lenengo ibiltaldia Artoaga'ko Ugarte'n amaitu ondoren, Zeanuri'raño eldu nintzan bigarrenean, Olabari'ko errotara, gero, beste lekuren batzuetara zer ikusiko, entzungo ta erosiko.

Errotearen klun-klon abesti motelak uruna ekarren askara, ta zelako uruna!

Ona jotean dabe gibeletik naiz guntzurrunetik osasun gabeak diranak; biotzerre, sabel-zirin eta lo baketsurik ezin egin daben guztiak. Au argitaratuko danerako labigerrik gozoena bertan izango dogu talo-morokil zaleok. Taloburdin eta maskillutan ostera, ez joan Zeanuri'ra, ez dozuz aurkituko-ta.

* * *

Atutxa'ren aragitegian aukerako txarri lodiak eta basurda gizenak sapatik dindilizka; asko erosi ta azkar ordainduten dauanarentzat, barriz, txistorlukainkatxo bat esku-ikusitzat. Eskerrik asko.

* * *

Pujana Bixente'nean landan azke asitako oillas-ko zanko-gorriak, arrautz gorringotsuak, coneju begigorriak e. t. a. Gaur egungo baserritar-baserritarra baiña, aterik-ate eta uririk-uri ondasun saltzen ibilteari emona ez dago, eta gauza ona nai dauna, Alzusta'ko auzotegira joan-bearrean izango da.

* * *

Amabosten bat egunaz ez zala errian agiri-ta, Manterola'tar On Gabirel'en billa be ibilli izan nintzan, bildurrez, idazti-liburu pilloen batetik urten ezinik, edo gai bardinezko meta garaien batetik jatsi ezinean izango etc. zan. Areitz-ekur mamitsu urtetsua birikiak aize-barritutera anka eginda egoan eta ezin ikusi ba. Ondo izan eta ongi-etorri.

* * *

San Justo auzuneak, millakak pesetatako suzi-riakaz aizea urratuteagaitik, orain izen barria: «Kabo Kennedy».

Berebillean gengoazala etxera biurtuteko, amabost erdel langillegaz alkartu giñan; Atleti zaleak izan ziran eta «agur» esaten bere poliki ekien.

Eta besterik zer? Ba, emen ni bizi nagan auzoan arratikume batzuk ezagututen dodaz amamari aia betean «abuela» deituten dautsoenak. Intxaurraga-Etxebarria aitite-amamak, eta Intxaurraga-Ozerin doguz erdeldun barri txikiak.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ILLAK ETA BIZIAK OROI

Gudaketa ondamengarriaren ondorenak erasota, gazte ederrik asko izan ziran erbeste urrutietara aldendu ziranak; Ameriketa'ra geien batzuk.

Biurtu bere, egin ziran batzuen batzuk, arrotzerrian oraindiño... zeinbatzuk!

Eta urteetan aurrera goazalarik, pitean bein, izaten dogu barri illunik... eriotza ta illetarik.

Lentxoago baten, Zuazo'tar Bixente'ren azken-arnasak Benezuela'tik; oraintzuago oster, Angoi-ta'tar Juanita il dala Kolonia'tik.

Juanita'ren senar atsekabetua, Puxana'tar Erraimunda, arratiar gudarien burua. Adizkide mindua-rentzat itz guztiak utsak; lagun kutunena eroan dautso, ba, Jauna'ren dei-otsak.

Gu, baiña, emendik besterik eziñean, gogoz lo-karriturik aldi samñean.

POZGARRIA

Zeanuri'n, santixagoz, ire emazte txit ona zanaren aldezko eleizkizunean, On Martin txanburua ta osaba On Permin, mezako. Neke-lagun, adizkide zaarrak ugari, Jauna goratzean Basilio bertsolari:

Buruausterik ugari dogu gizonok mundu onetan, askoren arten auxe gaurko au egiaz eta benetan:

Erri onetan jaio ta azi zan, orain il Ameriketa'n; zintzoarentzat an eta emen zerua dago ber-bertan.

Eriotzeak ebagi eta gorpuztik arimak alde; gorputzarentzat illunabarra, arimarentzat sorkalde.

Gizonak daben gogoramenik bikain-bikaiñena au dabe:

Alguztiduna egiten dala gure arimaren jabe.

Il dako danak gogoratuaz eginbear on bat bete, gure artean Juanita zana unetxo baten aparte.

Zeruko Aita emon etozu Goiko Erreñuan parte, eskatzen dogu biotz-biotzez; ta Juanita, laster arte!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

ZENBAT BURU AINBAT ABURU

Lau itz onein esan-naia au da: buru bakoitzak bere uste ta eretxiak dituala, ta iñoiz bere ez bardin-bardiñak. Gure irakurleen artean bere, guztirakoak doguz.

Geien batzuk, asteroko oneri buruz, ero-zoratuak, garbia, argia ta txairoa dalako; banakaren bat, ostera, epel-txuegia dala-ta, gai sakonagoen egarriz dira. Gaur egungo giroa baiña, ez uste gero sakon-sakonegietan ibiltekoa danik. Idazleak aski ta naiko egiten dau, irakurleari atea, sakonerako, idegi ta zabalduz, illuna geure kautan arakatu ta aztertuteko itziz.

Ez al dozue AGUR onetan irakurri —57^{gn} zenbakian, 2^{gn} orrialdean— Etxebarria'tar J. Anjel'en «Zereko Zera Zertzen» tximiñoaren uskia agertuz? Ez al dozue irakurri zenbaki berean, Ugarios'ko Txoria'ren txorrotxioz agertzen izan dan «Ermu'tik Petralanda'ra»?

Etxebarria'ren lana argitasunik askogaz azaldua izan dan arren, tximiñoaren zerak eta zergaitiak sakontze-lana, geure bizkar artu ta geuk egin bear dogu, mamirik ba-dogu-ta. Ugarios'koak udagoieneko txorrotxioz abestu dausku.

Emen be, ba, zerak eta zergaitien sakontzea geure eskuan itxi dausku, idaz-lan orretan.

Eta orain, ijijika ta ujujuka. Petralanda arakatutera: Nor dogu bera, inguru aretan ibilliz dabillen aker-sorgiña? Nik ez dakit, ziurtasunez beintzat, aker arraioa zein izan daitekenik, nire eretxi apalean baiña... «kapableen» bat izan bearako. Eta «kapablea» izatean, ez ete litzakigu obe izango, artaldea izurritu baiño len, Bargondi'ko kapatzailleari deitu, lagundu, eta igitai motzarekin «kapableak» kentzea?

Astean asteangoak gogotsu eta arretaz irakurriz, geu izan bear gara, ba, sakontzailleak.

* * *

Zieñek, au siñistu! Goizean bizirik eta osasunez izan ziran begi-gorri belarri-aundiak, Olabarri'ko Patxiko'ren konejuak, ibilliz eta izerdiz Artaundi'k eta Ugarios'tik igaro ondoren, eguerdiko ordu biak aldera, Oba'n izan zirala, Isidra'ren matzaienpean, koipe-lurrun artean! Oba, Olabarri'tik lekutan yaukoguk, bada.

Eskerrik asko, Patxiko, eta azi geiago be, beste baterako.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

IRRINTZI

Oraindik oraintsu Iurre'ko IRRINTZI'ren adar-turuta entzun izan dogu, pozez eta zorionez, AGUR'en orrialdeetan. Euskera «Kastilanizatuakin» eta «Latinilizatuagaz» asarrez eta zearka bizi-bizirik bizi dan gaztedi mardularen abots itxaropentsua izanik, itxartu ta esnatuko al da loari ta txurrutari emona dan gaztedi alper, ardura ta ajolik bagea.

Oba'n izan nintzan-eta, goi artan izan nintzalarik, Iurre'ko Santa Lutzi'n izaten dan lako meza abestu gozo ta biotzkorra izaten zala-ta, barruratu nintzan, ba, entzutera. Baiña, leku ta toki askotan aiña «baina» emen bere eta, obatarak ez ziran urratu.

Auzoan diran sator gibelerreai Jaungoikoa ta Erria euskal-abestiz goretsitea

politika-ekintza dirudie, eta, obatar jator zintzoak asarre-masarrea erakutziz abesti iraulketan inarduen.

Antxiñako baten bere, Anatxu Praka-gorriek, inongo inon inork egin ez dauana ementxe egin eben; kalteen bat egin bear-eta, besterik ezean... ur bedeinkatu-ontziak ustu ta leortu.

Aurtengo San Antoliñetan bere aalak eta bost egin zituezan, zozketa galerazo ta debekatuz eta, oztoporik ugari jarritz jaiari lurra jo-arazoteko. Guztia izan zan, bada, alperrik, jatorrak izan ziran garaille eta eper-baltzak buztana eperdiperatu bear izan eben.

Nasteak naste eta iskanbillak iskanbil, Oba'n ba-dogu, sayets-ikolentzat batez bere, gauz onik: Isidra'k gerta-riko kazpel-saltsak, pilpilladak.

Euskeraren batasunerako eta onerako dala esanik, emen zelako astakeriak, erderaren ongarri eta euskeraren kaltegarri gorri:

«Euskaltzaindi errespetagarriak (?) alfabetatze kanpainarako bulego espezializatuak sortu ditu. Presaka prestatutako liburuxka imprimirian moldatuko dute».

Ez al litzakio obe izango errespeto errespetagarriari errespetozko itz errespetotsu bat, kapable ba'da beintzat, EUSKALTZAINDIA'ren ordezkotzat eskojitu ta seinalatzia? Esaterako: «Baskuentzezaintza», «Euskalkuidantza» naiz antzerakoen bat.

Ekin, bada, eta jarrai. «Suabitateg» baiña, arren, ikurri margogearen pean. Erria naskatzen.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

UBETXAGA

Dima'tik eta Gorbeia'tik etorri-
tozan urak alkartuten diran leku aretan
dagolarik, dei dagiet Beti-Bizkor eta
Irrintzi'ri, arakatu eta aztertu dagien
auzotegiaren izen jator-egizkoa zein dan:
«Ubetxaga, Urbitzaga ala Urbiritxaga».

Gaurko onetan baiña, Ubetxaga'ri
loturik natorkizue. Gereta ta Solaguren

bitarteko beko zelaikadan beitegi bat
eta, beitegiaren izena izki ta letra aundiz
idatzita «Granja de Ubechaga». Granja
jarri bearrean «Beitegia» ipiñi ba'leutsoe,
erriko ta atzerrietatik etorritakoentzat
«beitegia» izenez ezagutua ta deitua
ziango zana, gaur egunean oso bestera
joten dau kukuak: euskaldunentzat Ube-
txa'ko Granjea da, eta erdeldunentzako,
Granja de Ubechaga.

Ba-litzake norbaitek esatea, tentel-
keriak azalduz diardudala, ta garrantzi-
rik emon ezean, olaxe izango litzake.
Oartu, konturatu gaitean baiña, zenbait
eta ainbat euskal-itx eder-jatorrik jan
dauskuezala erdereak, tentelkeria diru-
din zabarkeriari emonak izan garalako.

Erderari toki-eskeintza ta ongi-etorri
egite au, ez uste gero bart gaueko inontza
danik. Dirala eun urte ta lenagorik egiñak
diran basetxeetako ateburuetan bere,
euskal-gaixotasun berbera ikusi dagi-
kegu: «Edificado por...», «Reconstruido
el año...», ta abar. Edificado'ri tokia ta
lekua emoteak, ezezagun eta bakan biurtu
dausku, arratiar eta inguruetako asko-
rentzat bai beintzat, «eraiki» edo «eregi»
itzak, baita sustrai beretik sorturiko
erroak diran itzak: «eregille, eregigai,
eregitresna» a. ta abar.

Millakak dira, bidezabaletan batera ta
bestera, atzera ta aurrera eramane edo
eroan-ekarriak egiten diarduezan bur-
ditzar azkar ikaragarriak. Burdi onein
ateetan bere, euskeraren zorigaiztoa ta
makaltasuna besterik ez dogu ikusten:
«Transportes Bernaola», «Acarreo de
Tierras», «Canteras de Achondo» ta
abarrak asko.

Ea ba, mutillak! Garaia ta ordua bere
ba-da-ta, asi, bada, len baiña len, ogibi-
deari dagokion zabalkundea euskeraz
egiten, Urreizti motrikoarraren eredia
jarraitzen.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Naizta aspaldiz Bilbo'n bizi, izenak esku-tuan itxirik, emen aitatuko dodazan sernar-emazteak, oso ezagunak dira Arteaga'n eta Iurre'n.

Urte gixiren buruan, senarraren sudur-musturra gorri-baltzikatua izan zalako, arpegia mats-aicnez betetu ta arnas-bideak estutu... eldu eutsan, ba, emazteak, belarririk eta, aupa! osagilleagana.

Gizona ixil-ixillik egoan, Andrea marmar gaixotasunak autortu ta agertuten, eta sendagilleak, guztia entzun eta gaixoaren sofiña zeatz arakatu ondoren, diñotso:

—Ardauaren ardaus atzondo biko uia dozu, ta ez egizu edan. Kearen keagaz arnas bideak kedarratu dozuz eta erretzea Kaltegarri yatzu. Guzuz ganorabakorik ez esan eta askozaz gitxiago birao ta astakeriak.

Gorbaie'ko beleak Gorbaie maite-ta, gure adizkide arteagatarrak lengoetara jo, bidcak aldatuz. Ardaurik ordaindu, ez; edan, ura ba'litz lez. Kebedarra erosteari, itzi; ondoko lagunen bizkarretik izaten danean, kee guztiak iruntsi. Guzurrak eta biraoak debekatzea apaizen zeregiña dala-ta... len baizen gogor ekin...

Beste bein, gizon au, etxean izan zituan diruak eta orratz-ontziraiñoko guztia kolkoan artuta, lantegira. Eguerdian baiña, bazkaltzerakoan, diru etxearen ate aurretik igaro bearra eukalarik, emaztea antxe bertan, gizonaren begira guraize-artazi andi-andi zorrotzak zabalik eukazala. Gizona, emaztea alan ikusirik, belarriak okotzeraiño makurtu, ta barrura. Arrezkeroz ez dabil dirutza ta erronka andirik, naizta len aifña ta geiago edan eta erre.

IURRE'TIK

Ezkontza-jaiotzatzaz barririk aspaldiz izan ez dodan arren, Etxebarria'tar Segundo (Arturo ospetsua) izan zanaren ondorengoetan sendi-ugaritza izan dogu.

Etxebarria'tar Jasonc'k, Iñaki Ozerin lemoatarraren emazteak, seme eder bat izan dau. Ugutz edo bateo izena, Jon, ipifii dautsoe. Etxebarria'tar Kepa'ren emazteak, Errosa-Mari'k be, txiletarra au, alabatxo polita izan dau; izena, Agurtze.

Beoakioez AGUR onetatik zorion gartsuak eta ama euskeraren eskari au: «Arduratu ta alegindu zaiteze, gurasook, Euskalerrria'renganako maitasun beroenean azi ta eziten.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Etxe batean kea egiten zala-ta, beste otza zalako, irugarren etxeko gela ezkutu epelean alkartzen izan dira, Arantzazu'ko amonak, amama karteta-zaleak, jai ta igandero altzokada urre-ontzak jokatzera.

Neskato-mutiko koskortuak be, etxe artan bertan txolarte-gela (astialdietara-ko tokia) eta, asarratu ziran, ba egun batez, eta atsotxo gordiñenak, gazteenak, iraulketa egitea erabagi eben.

Iraulketa itza, zarrago ziranentsat, gogorkerizko ta odol-egarrizko itza izanik, aitarenka, txutxu-mutxuka ta izuturik eleizaren inguruan zebiltzazan; eta gazteagoak, arrorik eta txalrorik, anka ezkerzagaz gurpil-txirrinka egiñik erro-merira, auzora, ELAI-ALAI deritzon atee-taraifio.

Iraulketa baketsua ta ikaskizun ederra erri eta laterrientzat, aitarenka ta erromeriz asarreak aspiratzea.

Alboko errian, izena obe aitatu ez, oso bestera jazo da, senditartekoak ille-rrian asarratu ta, enparantzan, plazan... ia-ia musturrak gorritu.

" * "

Esan ba'neban esan, taloburdiñik Zea-nuri'n ez egola, esan neban, baita, entzutekoak eta bost entzun bere. Eta emen naz estutasunez, larvirik, igesian bide guztietatik; ortik eta emendik; Jesus Ozerin dabilligulako burduntzi luzanga zorrotza eskuan daukalarik... nire saietz-tarte errukarria urratu ta zulotu nairik.

Ozerin'tar Jesus adizkide orri: Ez al litzakigu obe izango, nik parka eskatu, zuk parkatu, tanbolin bete gastain erreren inguruan alkartu, ta bakea ospatu? Emen gozuz, ba, Biktor ta biok deiaren zai.

" * "

Udalaitz'ek eta Gaztañaga'k izen nagusiai buruz argitaraturikoatzaz nator-kizue. «Jonko», izenpetutako idazkia jaso izan dot eta, emen non ikusten dodan neure burua lenengo aldiz makurturik, izkuntza nastetzale jauntxo indarkeri zaleai itaun-galdera egitera bearturik: Andrazkoa ala gizonetzkoa dot idatzi daustana? Zergaitik ez, ba, Jone'k, Gotzone'k, Jokiñe'k eta abar, andrazkoa danean eta, Jon'ek, Gotzon'ek eta Jo-kin'ek gizonetzkoak izatean? Txakurren usain egiteakin, buztanpean, arra ala emea dan jakiteko ez gatoz bat.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Asteroko ontan, 61^ogn alean, Dima'ko Oba auzotegiari ta bertan izan zan eleiztarren arteko asarre ta zatikuntzari ikutuz azaldu nintzakizuen, baiña «zamakolatar baten» iturri garbiko ur gardena edan al izan dot arrezkeroz, eta parka eskaturik guztioi, autortu bearra dot, neu bere nastu egin ninduela oker esateakaz. Eta, atzegale (hachezale esan nai izan dot) morokilleroen aldezko biurtuz noala iñongo iñork uste baiño len, eta illunari argi egiñaz, egindako okerra zuzendu nai dot.

Eleiz-ateko urontzia ustutea ta Sanantoliñetako zozketa galerazo naia, begoz esan bezela, eta goazen zuzenean eleizbarruko matazara.

Ikastoletan, Euskal-jaietan eta Erriaren biztugarri izaten diran jaietan bezela, Oba'ko eleizazaleen artean bere, satorrak musturra sarturik eukan eta azpi-lanean iñarduan. Piztitxu narru leundunak, «hache»z beterik ziran ala-olako «eleiz-abesti»ak maltzurki irakatsiz, bereak eta bost azpilan eginda eukazan auzotegi eleizkoia oartu zan baiño len-eta. Eguna etorri zanean... betiko betikoen leloa: «au, bai; ori, ez. Gozen emendik, ez gatoz bat. Onetaroko deretxotik ez dago, abar eta abar».

Eta abar azkoz saltsa ta nasketea egin ondoren, eta auzokideak bide ezbarriñetara emonak ipiñi, buztana eperdiñean eta garaitza bizkarrean arturik, bildots barrien billa beste toki batera.

Kontuz ba, gazteok! Emon gatzeko daunbada barrero or izaten ba'dok.

* * *

Arkotxa, Euba'ko barriemolleak ez ete ekian?... Auzuneko sukalde baten, txipli-txapla-punka iru arroa gaztaiña erre ta jan ondoren, gizonzkoak bikarbonatoaren bearrean izan ziran; eta millaka pezetako txakurra barriz, andrazkoen aize-purrutadaz ito baiñian igeska.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Tataparratan, tarrapatatan bigi-bigi ta txukunik tanbolin-tuntuna jo, ta txistularieri lagunduz makiñatxo bat gazte dantzazaleri amaika biderrez bizitasun bizkorra eskeinduriko Altuna'tar Endika —Altxirri—, Artauri'go aitajauna, Dima'ko gizonik zaarrena, joan yaku, gau ta egun gabal idegirik, guztiontzat diran bideetan gora. G. B., Altuna zanari, ta atsekabe-agurra sendiari.

* * *

Angoiltia'tar Bitor, barrien barriz aitita izan dala entzun izan dogu, ta poztu gara. Lenengo aldiz izateak zankoak astun-nagitu ba'etsazan, bigarren ezateak bizkarra makurtu-arazoko dautso ziur asko, baiña perretxiko batzaille amorratua dan ezkeru, obeto ta errezago egitez eroango dau makurtze lana. Zorion, adizkide. Ez kokildu!

* * *

Joan dan Azillaren 19'ganean errizala euskeraren oiñarri sindo ta giltzarri lorringeak diran «Euskaltzaindi» koekin Tolosa'n izan giñan Euskalerriko txoko guztietatik. Euskerantoaren ezten musturtsuak zaurituz illobira eroan gura dauskuen izkuntz kutuna, loikeri zikiñetik atera, indarbarritu ta gaizkatzeari buruzko arazo ta erabakietzaz.

Eskuan dodan idazkortz au baiño zorrotz-bizkorragoren bat izando dalakoan, itaun-galdera au egiteak zirikatatu nau: Antxiñako antxinen baten toki ta leku alkar badiñak izan ete ziran Tolosa'n eta Arratia'n? Emen, Yurre ta Yurrebaso; Urkia, Urkitze ta Urkizu doguz; an, Tolosa'n, Yurrea-mendi ta Urkizu ikusi nituan.

* * *

Egunaren argitan, bide zuzenez eta gogo onez, Erriaren aldeko lanean diarduenentzat jakingarria. Bigarren aldizko labekadako «Sasi Batasuna» eskuan genduala etxeratu giñan. Satorren aspikeriak azaleratuz daragio berebiziko idaztitxo txiki-aundiak. Len agertua izan zana, lahe epeletik urtetako astirik barik agortua izan ba'zan, oraingo onetan bere ez dau salokistan autsak jango.

Aguro ibilli, ba, aspikeria, maltzurkeria ta loizikiñak nondik norakoak diran jakin-egarriz bigi zaren ori.

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Erririk-erri ta biderik-bide lorketan edo eroan-ekarrietan berebillez dabilteanentzat, batez bere arratiarrentzat, dei zirikitzailea agertu neban. Au da: berebil-burdiatako atestean erderaz idatzitako «Transportes», «Acarreos», «Tfno.» ta «N.º» ta abar euskerara biurtuteko garai ta ordua dala esanez.

Arazo au pitintxu bat luzetuz, esan bearra dot, ba, Arratia ta Bizkaia bera bere ez dala nagusi ta aurrelari izango eginbear onetan. Nire begiak ikusirikoa egia ba'da beintzat, lenago bere aitatu izan neban-eta, barrien-barriz bere aitatzera emonik nator, Urreizti motrikuarra izan dala bere berebillaren atestean euskeraz idatziriko ogibidea ta zuzenbidea egertu dauana. Beraz, dalako orretan, Gipuzkoa dogu, ba, bide urratzaille ta txapeldun.

Bigarren, eta au arrigarria. Aitor'en izkuntza guztiz eta osorik ia galdurik daukan Araba. Berebillaren ate batean eta bestean idazkun auxe darabil Gaizka nire adizkide barriak: Urdasta'tar Gaizka; 720147 urrutizkiña; Llodio'koa.

Gaizka au euskaldun barria dogu. Nekearen nekez egiten dau dakiana, baiña euskeraz beti-beti, eta ifioiz ez erderaz ezta erderanto batuan, euskaldunik ondoan izaten dauanean.

Zein izango dogu Bedia'tik Ubide'ra bitarte erdel idazkunak euskerara itzuli edo biurtu dituana? Erdiko?... Bernaola?... Sagarnatarrak?... Etorriko dan urte barrian izango dogu erantzuna.

* * *

Txikirotzaille, kapatzaille ala kapadorea? Dana dalako «hori» kapaduna da, edo izandakoa bai beintzat. Ar-emeetan ebaketa-mozketak egiten ez diardu orraitio, itzak baiña «kapatuz» deroaz. Txistua, xistu esan bearra dogu; Txomin, Xomin; txua, xua; txiki, xiki abar eta abar.

Nik neuk be, ba, zerbait egin gura-ta, emen zer egin dodan: Lenen, hatxe atxe(h) biurtu; bigarren, atxegaz atxe egin, eta atxegaz atxegale, atxelari, atzebero, atzgozo ta abar egin.

Gabon-jaiak baiña len barriro alkar ikusterik izango ez ba'gendu, Zorion guztioi!

LANDAJUELA'TAR A.

Arratia

Esku tartean dodan lantxo au argitaratuko danerako Gabon-eguberri jaietan izango gara J. I. eta, zer gauza egokiagorik, turroi gozoagorik, ortzak zorrotz eta aginak sendoak daukazenentzat, ementxe bertan aitatzuz eroango dodan aparia baino! Emen:

«Pertsona pribatuen firma publikoen mogimendu femenistaren planteamendua interesgarria eta logikoa». Amar itzetik bat bakarrik euskalduna «Fede faltso debilari kritika negatiboan diferentziazioaren inposibilitatea». Erderanto utsa. «Laudorioak eta ohoratzak gailegozko inskizioan inprimatuak». Euzkera «batuan». On egin begio etxekalteri ta gatzik ez Erria'ri!

AKERRA ZORRIZTO

Deia izan dot, Petralanda ingurumarietan dabilan akertxoari orrazketea egitera joateko esaten, eta bide batez, belarrian koska edo akatsa egitera.

Pozarren joango nintzake, baiña orrazketalanerako galtzairuzko sarrantxa ta orrazia bear eta, nik olakorik ez. Neu bere zorririk asko loditutakoa naz, bai, ta beste orrenbeste egin dagiala; bestela, ezpabere jo kitarrea ta dabillela.

Ulea galtzen asirik eta inongo jabereren akatsik ez belarrian! A zelako piztien bat!

EZKONTZAK

Nork ez ete-eban ezagutu Bizkai'ko ostikoketalandetan, «Txatxo», ulea zeoro galdu arte jokatu ebana? Bixente'ren semea Kepa Koldo, euskalduna ta injenierua; eta Borda Ma. Angeles, gaixoak eta zaurituak osatuten ikasia, izan dira, ba, maitemaiterik ezkontzaz alkartu diranak.

Eztegu-aparian, ba-zan zer janik, nork janik eta umore onik. Bixente'ren txapelak, ule kirruaren ganean, dantzan eragoion. Bekoetxe'ko Txurtil ostera, Txurtxil izan bear artarako ta, urkuilluegaz eutsi bearreko txokorra ezpanartean eukala aspal-dikorik osasuntsuen.

Ezkondu zan baita, Iruarritzaga Klaudio'ren semea, Xabier Ander. Onekin ezkondu dan neskatilleak amalau esne-bei ditu ukuluan, kortan. Klaudio'k izango dau ba; negu ontan, esne onez eta garbiz bustitako talo ta morokil jaterik.

AGUR onen bitartekotasunez ZORION guztioi.

LANDAJUELA'TAR A.